


GOIERRITARRA

HAMABOSTEKARIA

64. zenbakia

95ko otsailak 10



Neguaren bihotzean

Hauek dira gure moduloen neurri eta tarifak

Orri osoa, behin: 50.000 pzta. 5 aldiz: 45.000 pzta. bakoitza
Orri erdia eta azaleko faldoia, behin: 25.000 pzta. 5 aldiz: 22.500 pzta. bakoitza

Modulo 1

Behin: 3.000 pzta.
10 aldiz: 2.500 bakoitza.

2 modulo

Behin: 6.000 pzta.
10 aldiz: 5.000 bakoitza.

3 modulo

Behin: 9.000 pzta.
10 aldiz: 7.500 bakoitza.

2 modulo

Behin: 6.000 pzta.
10 aldiz: 5.000 bakoitza.

4 modulo

Behin: 12.000 pzta.
10 aldiz: 10.000 bakoitza.

6 modulo

Behin: 18.000 pzta.
10 aldiz: 15.000 bakoitza.

Publizitate hau 4.000 txokotan sartzen da,
14.000 irakurle ditu GOIERRITARRA hamabostekariak

☎ **88 96 12**

Faxa: 88 27 19

GOIERRITARRA
HAMABOSTEKARIA
Argitaratzailea:
"Goierritarrak" Kultur
Elkartea.

Dorre-etxea, 1.
(Correos-gainean).
Tfnoa: 889612.
Faxa: 882719.
124 posta kutxa,
Ordizia.

Zuzendaria:
Loinaz Agirre.

Erredakzioa:
Jon Arano, Mikel Albisu.

Publizitatea:
Argider Mujika.

Erredakzio Batzordea:
Dionisio Amundarain, Jon
Arano, Mikel Albisu, Jon Ima-
nol Iturrioz, Patxi Zubizarreta,
Ane Martin, Loinaz Agirre, Ne-
kane Altuna eta Estitxu Imaz.

Zenbaki honetako kronista
eta kolaboratzaileak:

Aitor Calvillo, Joseba Telleria,
Ana Irastorza, Josune Amon-
darain, Rufino Iraola, Mari Joxe
Madariaga, Gabino Murua,
Iñaka Murua, Aitziber Murua,
Estitxu Imaz, Aitor Asurmendi,
Iñaki Leturia, Edurne Ayuso,
Koldo Zubeldia eta Aitor Arza.

Azaleko argazkia: K. Ariza-
baleta

**Fotokonposaketa eta maketa-
zioa:** GOIERRITARRA.
Inprimaketa: ANTZA, S.A.
(Industrialdea, 1-2. Lasarte-
Oria)

Tirada: 4.300 ale. 4.000 harpi-
dedun.

ISSN: 1132-0907

Lege Gordailua: SS-926/89

Frankeo kontzertatua: 37/76

GOIERRITARRAK ez du
bere gain hartzen derrigorrez,
aldizkarian adierazitako esa-
nen eta iritzien erantzunkin-
zunik.

▼ Hamabostaldian nabarmen ▼



Goieniz, goierritarren Zine Kluba

89tik hona geldirik egon ondoren, zenbait zinezale elkartu eta Goieniz, Goierriko Zine Kluba martxan jarri dute. Beasaingo Zineman izango dira emanaldiak, martxoaren 2tik aurrera, ostegunetan (aurrerago zehaztuko ditugu egunak eta filmeak), gaueko 9etan. Aurten bi ziklo egiteko asmoa dute: martxotik maiatzera eta urritik abendura.

Beasaingo Zinema berriak bultzatu dituzte zinezaleak elkartu eta Zine Kluba berpiztera. "Botatzen dituzten pelikulak ikusirik, zine komertzialari alternatiba eman nahi diogu", adierazi digute. "Gainera, Beasainen zinera joateko ohitura galdu egin da. Eta zine giro hori sortu nahi dugu", gaineratu dute. Beasaingo Udalaren dirulaguntza dute Zine Kluba aurrera eramateko. Momentuz behintzat, Beasainen bakarrik izango dira emanaldiak. Dena den,

"hitz eginda dago datorren urterako bi udalen arteko elkarlanean aritze hori, antzerkiarekin egin duten bezala", zehaztu digute.

Beasaingo Udalaren dirulaguntzaz gain, 'Laguntzaile txartela' edo abonoak ateratzeko asmoa dago. "Laguntzaileak sortu nahi ditugu, zine klubaren izaera berreskuratu nahi dugu. Hau da, jendea ez dadila izan ikusle soila. 6 pelikula ikusteko balioko luke txartel honek. 2.000 pezetan salduko dira. Sarrerak 450 pzt. balioko du eta abonoa izanez gero, 330", azpimarratu dute. Bestalde, "orri informatiboak egingo ditugu saio bakoitzean banatzeko eta bertan inkesta txiki bat azalduko da. Laguntzaile horiek zeresan handia daukate".

Bukatzeko, Goieniz "zineak gustatzen zaion edonori irekita dagoen Zine Kluba" dela gogorazi nahi izan dute.

Besteek esana

* "Kontseilari naizen bitartean asko hitz egin eta entzun beharko dut".

* "Ikaragarritzko garrantzia du gure herria barrutik eraikitzeak. Hori egiteko gai garen neurrian, hortxe azalduko da gure izaera".

* "Askotan kanpora begiratu dugu eta geurea eta itxurazkoa zena ahaztu. Kultura ere bada J.M. Barandiaranek idatzita utzi zuen hura: Herri batek bizitzan zehar egunero sortzen zaizkion galdera eta arazoei ematen dien erantzuna".

Mari Karmen Garmendia Kultur Kontseilari ormaiztegiarrak
"Argia"n, 95-I-29.

* "Hainbat gazte euskaldundu dira, nahiko gaitasun dute euskaraz irakurtzeko, idazteko eta hitz egiteko ere, baina egunerokotasunean erdarara jotzen dute. Horrek esan nahi du badirela erabileran eragin handia duten landu beharreko zenbait faktore".

HPINeko Joxe Mari Zerberio **ataundarrak**
"Egin"en, 95-II-1.

*Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak,
Gipuzkoako Foru Aldundiak eta*

GOIERRIKO UDALEK diruz lagundutako aldizkaria



GOIERRITARRA dohain
jaso nahi dut etxean

Izen deiturak

Helbidea.....

Herria

Ordiziako 124 Posta Kutxara bidali

GOIERRITARRAri

"Goierritarrak Kultur Elkartek"ko partaidea egiteaz gain, bertso pare bat igortzen dizkizuet kolaborazio gixara. Aurrerantzean ere moduren batetara laguntzarik behar baduzue, nere borondatea zuekin dagoela jakin arazi nahi dizuet. Lan hau balekoa suertatu-ko zaizuelakoan agurtzen zaituztet.

Gaia: GOIERRITARRA

Doinua: Eguzkitzek azken txapelketa nagusian aurkezturikoa

Orain bost urte bete zitzaigun ordurarteko ametsa aldizkari bat edukitzea ezta gogo aldrebesa. GOIERRITARRA gaur egun dugu finkaturiko promesa, baina laguntzarik eza baina laguntzarik eza nahiz erakunde batzuetatik laguntza izan ihesa, irakurleok luza zaigun onespén eta babesa onespén eta babesa.

Goierritar den pertsona oro laguntza emateko gai, janari baten errezeta bat bidali liteke alai. Iragarkiak ere hor daude gehienak kasikan dohai, ez egon geroaren zai, ez egon geroaren zai,

mila ta bostehun peza igorri borondate onaren nahi, literaturaz lagun leike ta ogerlekoez ere bai ogerlekoez ere bai.

*Zuen adiskidea,
Jon Agirre (Lazkao)*

Hipokrisi-itxurakeriei stop!

Ordiziako Gazte Asanbladak bere IX urtemuga ospatzeko atera duen kar-telean, desperdiziorik ez duen esaldi kurioso bat ezarri du, osoki honelaxe dioena: "Gure IX. urtemuga EZ diegu dedikatzen: ez militarrei, ez bankeroei, ez Vatikanoko santuari, ez gorritz, beltzez edo orlegiz dihoaztenei, ez bortxa-tzaileei, ez herrien askatasuna zapal-tzen dutenei, ez Tele5ri edo ETBri, ezta narkotrafikantei, ezta F. Gonzalez edo X. Arzallusi, ezta gizarte matxista honi, ezta... Gure IX urtemuga eskeintzen diegu OGAKo izandako guztiei, baita Gaztetxetik pasatu diren talde guztiei, hasi musikakoak, antzerkikoak... gau-za desberdinengatik gure jai hau ospa-tu ezingo dutenei, baita preso politi-koei, sozialei eta intsumisoei, langabe-tuei, emakumei eta umeei, baita dedi-katzen diegu GROZNIko erresisten-tziari, Bronxeko beltzei, eta nola ez Euskal Herriko gaztedi libertario, anarkista eta iraultzaileari: Beti arte".

Esaldiak duen kutsuagatik suposa-tzen dut ezker abertzaletasunaren in-guruko norbaitek idatzi duela, baina ez dut horregatik idazten, niri bost axo-la esaldi egilearen pentsamoldea. Ara-zoa zera da: zergatik goraipatzen du Grozniiko erresistentzia? Milizia txe-txeniarrak bonbardatzen dituzten he-gazkinak ba al daki zein ikur duten he-goetan? Milizia txetxeniarrak tiroka-tzen dituzten soldaduak ba al daki zein ikur duten bere kaskoetan? Esango di-zut: *Izar Gorria*. Errusiaren izar gorri libertario eta iraultzailea. Erantzun modura esan dezakezue Errusian sis-tema komunistik ez dagoela; nik zera eskatzen dizuet, begirada bat bota ezaiozue gobernuan dauden pertso-naiei: Boris Yeltsin, PCUSeko kide izana, atzetik xaxatzen duen Zirinovski nazia KGBko kide izana... Zergatik ez duzue goraipatzen Tibet-aren inde-pendentziaren aldeko eguneroko lana? Potentzia koloniala kasu honetan 1959 inbasioaz Txina komunistak delako, horrexegatik isiltzen zarete. Zuek Txe-txeniako egoera salatu nahia ezjakin-tasunari atxikitu nahi nioke, hipokrisi kasu larri baten aurrean egongo gina-teke bestela.


Denok edan behar dugu zerbaite gutxi batzuek dena edan ez dezaten.

Xabier Eskisabel (Beasain)

Zure abisu eta oharrak eskertuko ditugu.

Norbaitek artikulua edo erre-portaiena bat idatzi nahi badu, be-re herriko kronikatxoa, iritziren bat eman edo salaketaren bat egin, lagundu nahi baligu era ba-tera edo bestera, gure helbidera bidali edo gurekin harremanetan jartzea besterik ez du.

GOIERRITARRA, 124 p. k.
ORDIZIA Tfona: 88 96 12



GOIAGI
OKINDEGI
Ogigintzan onenak!!

Etxezarreta z/g
ORDIZIA ☎ 160501

- ◆ Egurrezko labean egindako ogi gozoa
- ◆ Opil finak
- ◆ Eguneroko ogia
- ◆ Ogi bereziak
- ◆ Ogi artisauak

Barandiaran Taldea, 2
ZALDIBIA ☎ 880737



Intereseko Telefonoak

Mutiloa

Udaletxea:801285

Tfno. publikoa:801166

Olaberria

Udaletxea:881434

Eskolak:881232

Castillo Hotela:882011

Tfno. publikoa:881111

Ormaiztegi

Udaletxea:882660

Anbulategia:888432

Segura

Udaletxea:801006

Anbulategia:801919

Eskolak:801776

Hospitala:801041

Zegama

Udaletxea:801115

Anbulategia:801351


Eskolak:800042

Zerain

Udaletxea:801724

Medikua:801136

Tfno. publikoa:801183



Errezeta



Mari Karmen Ortégak emana
Barandi taberna
Ordizia

GAZTA PASTELA

Osagaiak: Limoi gelatina, Philadelphia gazta, esnegaina, galleta tostatuak eta albarikoke mermelada.

Bi baso ur berotzen jartzen dira, irakitean limoi jelatina gehitu eta 5 minutuz nahastu ondoren hozten uzten da. Ontzi batean gazta eta esnegaina ondo nahasten dira pasta bat egin

arte. Gelatina hoztean pastarekin ondo nahastu. Beste alde batetik gailetak apurtzen dira eta ontzi baten zabaldua jartzen dira, ondoren aurreko nahasketa gailetik gehitzen zaio kontuz-kontuz. Ordu erdi batez frigorifikoa sartzen da. Ateratzean mermelada gainean jarri eta eta mahairatzeko prest dago.



Bota bertsoa



Ekaitz Goikoetxea
Gaia: Iriarterekin
Erreala gora
Doinua: "Nafarroako mendigainean"

Iriarteri eman zioten entrenatzeko aukera, eta ordundik taldea doa poliki taulan aurrera, ilusioa ekarria du jokalarien artera, Salba Iriarte etorri zaigu Erreala salbatzera. (bis)

Jokalariek ezartzen dute futbol zelaian arreta, Kodrori pasa eta sarera doa bere jaurtiketa, oraindik ere aurkitzen gera itxaropenez beteta, hola jarraituz hurrengo urtean UEFAn egongo da eta. (bis)

KUKO

Jatetxea

Kuko, gure txef-ak zure sabelak eskertuko duen menua eskeintzen dizu:

Astelehenetik ostiralerara menu bereziak.

Eguerdietan 2.000 pzta. + BEZA

Toki mugatua dago, eskaerak aurrez egin. On egin diezazula!

Berjaldegi plaza z/g
Tfnoa: 88 28 93
ORMAIZTEGI



Tfnoa: 885500 ORDIZIA

TAPIZ ETA GAINEZTADURA
TAILERRA

BIOK, c. b.

Zoruetako moketak, parketak, zintasola, e.a.

Ezkiaga Etorbidea, z/g.

Tfnoak: 88 80 22 - 88 79 17

BEASAIN



- Mediku akupuntorea
- Pisuaren kontrola
- Estetiziena

Santa María, 8 - Tel. 881211 - ORDIZIA

Debaldeko iragarkiak

Salerosketak

□ 2 motor daude salgai: Peugeot Buksi eta Rieju RR. Interesatuok deitu 885513 telefonora, Yolandagatik galdetuz.

□ 'Montaña de Pirineo' arrazako txakurra saltzen da Ataunen. 180088.

□ Goi-mendiko zakua salgai, lumaduna, berri-berria, salneurria tratuan, hitzegiteko. Dei 889612ra, Mikel.

Lana

□ Esperientzia duen neska bat eskaintzen da umeak zaindu eta etxeko lanak egiteko. 885657.

Etxebizitzak

□ Pisua salgai Ordiziako Lazkaoemendi kalean (Altamiran). Berogailu zentrala, 3 logela, egongela, sukalde, komuna eta ganbara. 8.500.000 pza.n. 889728-886120.

□ Garaje lekua salgai Ordiziako Arana kalean. 885584.

□ Donostiako Alde Zaharrean pisu bat salgai. 60m², garaia eta leihoak kanpoaldera. Dei 427804ra arratsaldean.

ANTZERKIA

✓ Ordizia:

Otsailak 24, 'Todas culpables' antzezlanaren Herri Antzokian 22.15etan.

MUSIKA

✓ Beasain:

Otsailak 11, Otaitz abeslari donostiarraren kontzertua 23.00etan, Aterpe Tabernan.

Otsailak 16, German Ormazabal eta Javi Fernandez bi pianoen kontzertua Usurbe Antzokian, 20.00etan.

Otsailak 18, 'Agur Macbeth' britainiar bikote akustikoaren kontzertu-errezitala Aterpe Tabernan 23.00etan.

✓ Ordizia:

Otsailak 11, Gozategi, Potrotaino, Anestesia, Parabellum eta E.H. Sukarra taldeen kontzertua, Pilotalekuan 22.30etan.

Otsailak 17, 'musika akustika' kontzertua, Barrenan, 22.00etan.

BERTOLARIAK

✓ Lazkao:

Otsailak 21, Goierriko

Egutegiak

Bertsolari Eskolako gazteak, Maizpideko jangelan gaueko 9etan.

ZINEA

✓ Beasain:

Larunbata 11, "Los mejores años de nuestra vida", 19,30-22,15.

Igandea 12, "Los mejores años de nuestra vida", 19,30-22,15.

Astelehena 13, 'Alargunaren gailurra' Usurbe Antzokian goizeko 9.30etan. "Los mejores años de nuestra vida", 7,30-22,15.

✓ Ordizia:

Ostirala 10, "Pesadilla antes de navidad", 10,15.

Larunbata 11, "Entrevista con el vampiro", 7,30-10,15.

Igandea 12, "Pesadilla antes de navidad", 4,45. "Entrevista con el vampiro", 7,30-10,15.

Astelehena 13, "Entre-

vista con el vampiro", 7,30.

Ostirala 17, "El Rey Leon", 10,15.

Larunbata 18, "El Rey Leon", 7,30-10,15

Igandea 19, "El Rey Leon", 4,45-7,30-10,15.

Astelehena 20, "El Rey Leon", 7,30.

IKASTAROK

✓ Beasain:

Otsailaren 20tik aurrera, argazkigintzari buruzko hasiera mailako ikastaroa. Iraupena: 20 ordu. Klase egunak astelehen eta asteazkenetan 19.00etatik 21.00etara. Matrikula: 3.000 pta.

OSPAKIZUNAK

✓ Ordizia: Gaztetxearen IX. urtemuga

Otsailak 11: 11.30etan pepinazoa Gaztetxe bakoitzetik. 12.00etan trikitixa, malabarak eta poteo herrikoia. 14.00etan bazkari informala. 17.00ak aldera dantza lehiaketa. 22.30etan Gozategi, Potrotaino, Anestesia, Parabellun eta E.H. Sukarraren kontzertua. Arratsaldean bideak eta erakusketak izango dira Gaztetxean.



Nafarroa Etorbidea, 9
Tfnak: 88 94 82
20200 BEASAIN

KONTSULTORIO MEDIKU-KIRURGIKOA

Goierritarrentzako mediku zerbitzu espezializatuak

Ordua eskatzeko Tfnoak: 885750 - 885754
Nafarroa Etorbidea, 25 - 2. BEASAIN



Otsailak 12: 13.30etan jai giroa kalean, trikitixaz alaiturik. 14.30etan bazkaria Gaztetxean. Jarraian euskarazko txiste lehia-keta. 18.00ak aldera Alde Zaharrean bideoak eta 19.30etan txokolate jana. 20.00etan Ereñozutik etorritako suzko malabar-rak. 21.00etan amaierako brindisa.

ERAKUSKETA

✓ Beasain:

Otsailaren 24ra bitar-tean, Mikel Mendizaba-len pintura erakusketa Aterpe Tabernan.



Otsailaren 26ra bitar-tean, Nestor Basterre-txearen erakusketa Usur-be Antzokiko erakusketa aretoan.

✓ Ordizia:

Otsailaren 17ra bitar-

tean, Nuria del Buey eta Izaskun Bravoren pintura erakusketa, Barrenan.

MENDI IRTEERAK

Beasaingo mendizaleak:

Otsailak 12, Agidora (740 m.) mendi irteera.

Otsailak 19, Balzolako kobazulora.

Ordiziako mendizaleak:

Otsailak 12, Deskar-ga-Korosti-Legazpi ibilaldia.

Otsailak 19, Zarautz-Itziar ibilaldia.

Pausogaizto Goierriko mendizaleak:

Otsailak 18, Ataungo Ama Birjiñaren kobara.

Idiazabalgo mendizaleak:

Otsailak 18-19, Panticosara (eski saioa).

GOARDIAKO BOTIKAK

Otsailak 10: Jauregi; **11-12:** Arriola; **13:** Lournaga; **14:** Cuesta; **15:** Arriola; **16:** Urbizu; **17:** Atorrasagasti; **18-19-20:** Azpilikueta; **21:** Jauregi; **22:** Lournaga; **23:** Cuesta.



Nobedade handirik ez

Ez zen aparteko nobedaderik izan asteazkeneko azokan. **Produktu berri bakarrak,** marrubi landarea eta kanpoko ilarrak izan ziren. 40 pezetan saldu zen marrubi landara takoa eta ilarrak 450ean. Bestetik arrain saltzaileek diotenez, garai onak datoz arrainae-rosteko, eguraldi ona dela tarteko.

Abereetan, arkumea modu onean saldu zen: 425 pezetan. 267 buru ekarri eta guztiak saldu ziren. Untxiak 215ean. Ardi esneak behera egin zuen zertxobait, 200-210 pezetan litroa.

Bertako produktuetan berdintsu jarraitzen dute kontuek. Errezil sagarra 100-400 pezeta; azalorak 100-175; azak neurriaren arabera, 50-125; eskarolak 60-70; letxugak 50-70; patatak 80-100; atxikoria 50-60; babarrun beltza

700-1.100; babarrun gorri eta txuria 600-700; eta baba txikia 150- 260.

Kanpokoetan, marrubiak jaitsi egin dira, 500-550 pezetan kiloak. Patata igo egin zen 90-110ean. Granada aldeko patata berria berriz, 180an eta ereiteko patata, 98an saldu ziren. Gainontzean, Tuterako alkatxofak 450 pezeta dozena; piper gorriak 275-350ean; tomattea 200- 250ean; eta lekak 450-550ean.

Arrainak azkenik, bixigua 3.200 pezetan saldu zen; mediana 1.690ean; txipiroiak 1.350-1.250ean; txitarro txikia 890ean; sardinak 550ean; antxoak 750ean; antxoilak 1.280 pezetan; mihi arraina 1.650ean; bakailau xerrak 1.200ean eta angulak 14.000-15.000 pezetan.

Ana Irastorza



ZEGAMA
OKINDEGIA

*Eskuz egindako
agi naturala*

☎ 80 10 66
80 10 70 (Etxea)

Olaberria Kalea, 6
ZEGAMA

SALMENTA PUNTUAK:

Beasainen: Osaki belardendan, Igartza Oletako kioskoan, Begue janaridendan, Montoia harategian, Eroslen.

Ordizian: Altamiran, Martina Bustuntzan, Osasun belardendan, Muño denda Urdanetan.

Zegaman: Kooperatiban, Maria Jesusen dendan, Arrondon.

Segurako Erosle eta Idiazabalgo Alda-

ZALBIDE
SAGARDOEGIA



☎ 65 21 76

Abaltzisketa



II. TXISTE IDATZIEN LEHIAKETA
- AURKEZTUTAKO TXISTEAK -
1992ko Abendua

GOIERRIKO GOIZTIRI EUSKALTEGIA

IV. TXISTE IDATZIEN TXAPELKETA

antolatu du AEKk. Euskara kaleratu eta helduak euskara idaztera bultzatu asmoz, Goierriko Korrika Batzordeak antolatu du txapelketa hau Korrika 9aren inguruan. Parte hartzeko baldintza bakarrak 16 urtetik gora izatea eta txistek euskara batuan edo bertako euskalkian idatziak egotea dira. Txis-

teak martxoaren 10a baino lehen bidali behar dira Goiztiri AEK Euskaltegia, 116 p.k. Ordiziara. Aukeraketa Goiztiriko ikasleek egingo dute eta martxoaren 17an Beasainen egingo den Korrika afarian banatuko dira sariak. Irabazleen izenak komunikabideetan aterako dira eta 3 txiste onenek hurrengo sariak jasoko dituzte: Afaria 2 lagunentzat Ordiziako Oiangui jatetxeak eskeinita eta Ordiziako Goen argazkidendak eskeinitako kamara eder bat; afaria 2 lagunentzat Larraitzeko Na+arriren eskutik eta Beasaingo Oskarbi liburudendak eskeinitako 10.000 pzta.ko erosketa txartela; afaria 2 lagunentzat Ataungo Urbitartek emana eta Ordiziako Kixmi oparidendak eskeinitako 10.000

pzta.ko erosketa txartela. Parte hartzaileen artean beste 5 sari ere zozketatuko dira. 93ko abenduan III. txapelketara aurkeztutako txisteeikiko liburuska martxorako kaleratuko da.

KORRIKA 9 BATZORDEAK

Ordizian, Beasainen eta Lazkaon Korrikako lehengo batzordeak egin ondoren, 2. bilera egunak jarriak daude. Euskaltzale eta herritar guztiei dei egiten diegu horietan parte har dezaten, Korrikaren antolakuntza zabala eta arrakastatsua izan dadin.

* Beasain: 2. batzordea, ostegunean otsailaren 16an, udaletxean 8etan.

* Ordizia: Batzordea aste-
ro biltzen ari da Barrena Kultur Etxean. Lazkao:

Astero bilduko dira Udaletxean.

* Gainerako herrietan ere batzordeak sortzeaz daude eta deia pasako da.

GOIERRIKO ERRETRATU ZAHARRAREN ESKE GOIERRITARRA

Goierriko edozein herritako erretratu zaharrak behar ditu GOIERRITARRAK; argitara emateko. Xehetasun guztiekin, ahal bada. Argazkiak hutsik egin gabe itzuliko dira. Mila esker! Gure zuzenbidea: 124 p.k. Ordizia. Dorre-Etxean gaude, "Correos" eta Nekazal Ganbaren gainean. Tfnoa: 889612.



GOIERRITARRAK KULTUR ELKARTEKO BAZKIDE IZAN NAHI DUT NIK ERE

IZEN-ABIZENAK

HELBIDEA

HERRIA.....TELEFONOA.....

BANKETXEA.....BULEGOA

KONTU KORRONTE ZENB.

(1.500 PEZETAKO KUOTA/URTEKO)

BIDALI "GOIERRITARRAK K.E." 124. P.K. ORDIZIA

Eman eta zabal zazu

GOIERRITARRAK
KULTUR ELKARTEA da eskuetan izaten duzun GOIERRITARRA aldizkariaren editorea, jakingo duzunez. Kultur Elkarte hau bultzatzeko (eta bi-debatez debalde jasotzen duzun hamabosterokoa sendotzeko) kanpaina bati ekin diogu, Goierriko kultur ondarea denon artean bildu eta goratzeko asmoz.

Idea faltarik ez eta eginkizun ugari ditugu aurrez ikusirik: Goierriko herrien gehigarri bereziak, liburuak argitaratu

udalekin, kultur elkarte eta jendeekin bat eginik, ekintzak antolatu, e.a. Asmo honekin ados baldin bazatoz eta laguntzeko borondate hori baduzu, "Goierritarrak" K.E.-a indarberritzea nahiko bazenu, bete ezazu ondoko bazkide txartela eta bidali iezaguzu.

Oharrak: honek ez du esan nahi aldizkaria ordaindu beharra dagoenik; dena den, harpide ezezik bazkide egingo bazina, mesede haundia egingo zeniguke euskaltzale goierritar guztioi; bestalde, bazkideek eskubide batzuk izango dituzte: opariak, liburuak eta kamixetak jaso, ekintzetan partaide izan...

Batea erderaz da

Bai halaxe da bada, Beasaingoa bai behintzat! Ez dut onartzen Goierri bailaran euskarak duen egoera izanda eta alor gehienetan egiten ari den ahalegina kontuan izanik, nola litekeen Ertzaintza ia erabat erdalduna izatea herritarrekiko harreman mintzatuan eta gutiz erdalduna idatzian.

Joan zen astean, ikasle bati gertatua lekuko. Karneta galdu eta horren salaketa egitera Basera joan zenean, han zeuden ertzainek ez zekiten tutik ere euskaraz, beraz, erdara batuan hitzegitera derrigortu zuten justiziaren izenean eta hori gutxi balitz bezala, bere izen euskalduna esan zienean (eta ez da hain ezohizkoa) ertzainok algara batean, ez zutelako ongi idazten asmatzen edo, argitasun une batez, beren hizkuntza bakarreko beste izenen batekin parekotasuna aurkitu ziotelako. Pentsa dezakezen bezala, edozein euskaldun normalek egingo lukeena egin zuen, bestezaz lotsa sentitu eta sekula gehiago hara ez itzultzeko adinako nazkarekin aldegin. Hori bai, erderaz txukun asko idatzitako ziurtagiri batekin.

Oraindik urte asko ez dela, Ordiziako beste Base edo koartelean gertatzen zitzaizkigun horrelakoak baina, hangoena normalizat geneukan besteak beste, euskararen normalizazioa galeraztea ere beren funtzioetako bat jotzen baikenuen. Ez nekiena zera da, ertzainek ere funtzio hau berengatu dutela. Trajea bakarrik al duzue desberdina? Seguru asko hau entzunda, ertzain bat baino gehiago sutuko da baina, praktikan, nik goian kontatu dudana egiten ari dena ez al da horretan ari? Zein politiko artaburuk (eta ez dezala kalifikatibo hau insultotzat hartu, lore bat baita hori erabaki duen "abertzalearentzat") antolatatu ditu gauzak hain egoki?

Badakit arduradunok, Ertzaintzaren aurkako kanpainan sartuko duzuela eskutitz hau baina, euskararen alde gaudenon ahaleginaren kanpainan sartu behar zenukete, eta ez "arregiak" izan!

Īnaki Murua



MUJKA
LIBURUDENDA

Kale Nagusia, 19. Tel. 88 11 94
ORDIZIA

Presoak Euskal Herrira ekartzearen alde al zaude?



Mikel Izagirre
21 urte, langilea
lazkaotarra

Bai. Bakoitzak bere herrian egon behar du, beraz, presoentzat leku egokia EHan dugu. Dispersioa arma bat gehiago da. Presoen sendiar-tekoen arazoa hori da: zergatik hain urruti eta zergatik hain gaizki.



Nekane Arratibel
26 urte, irakaslea
lazkaotarra

Bai. Oinarrizko eskubide bat da, euskaldunak badira etxetik gertu egotea. Ekonomikoki eta beste aspektu askotan oso gogorra da bai beraiantzat eta bai familia-arentzat.



Fermin Hernandez
52 urte, jubilatua
beasaindarra

Noski baietz. Familiarentzat gastu gutxiago eta errepedietan istripu gutxiago izango lirateke. Guztiak batera, EHan, hobeto egongo lirateke.



▼ ▼ A ze flaxa! ▼ ▼

Fotografie!

Oraingoan ere "goierritarkerie" nagusi! Beasaingo Koio-te-tik pasa izan zaretenok ikusiko zenuten paretatik zintzilik. Orain alperrik, jada ez dago. "Farmazie" eta gixakoak esaten ditugula, horixe leporatzen digute munduan diren beterritar guztiek. Ba, hemen ikus daiteke, proba dokumentatua da hau: alemanek edo holandesek (eta batek daki nongotarra den Dolf Kruger argazkilariak gutxienez) goierritarrok bezala esaten dute: "Fotografie". Ez geunden oker, ez horixe!



GENERALI
Aseguroak

ĪNAKI ARIN BAZTARRIKA

Oriako Pasealekua, 20

Tfona: 88 87 02

BEASAIN

Lirain

Lurrindegia eta Opari Gaiak

San Inazio, 14 ☎ 88 93 90 BEASAIN

OSTASUN

BELAR ETA DIETETIKA DENDA
NATUROPATA

Eska ezazu eguna eta ordua

Goierri, 10 • Tfona: 88 61 14 • ORDIZIA



Aitziber Murua
(Ormaiztegiarra,
Historian lizentziatua)

**“Bere balio
historiko-
sozialaz
oharturik zubi
zaharra
mantentzea
erabaki du
Ormaiztegik”**

Ormaiztegiko zubia Irun-Madril tren lerroko 573. km.-an kokaturik aurkitzen da. Zubi hau 1864ko abuztuaren 15ean inauguratu zen eta ordu ezkerroztik 130 urteetan ezinbestekoa izan da trenen joan-etorri-rako. Bere iraupena bezain besteko historia luzekoa dugu Ormaiztegiko zubi hau.

Irun-Madril tren lerroa nondik igaroko zen erabakitzea gai erabat eztabaidatua izan zen garaikideen artean; bereziki Gipuzkoa eta Bizkaia probintzien arteko lehia izan zen. Azkenik gipuzkoar garaikideak benetan poztu zituen berria 1857an gauzatu zen: tren-lerroa Gipuzkoako herriak zeharkatuz igaroko zen. 1864an inauguratu zen honek Gipuzkoako herriei garapena eta oparotasuna ekarri izan die, Irun Frantzia eta atzerri-rako atea izan delarik. Baina Gipuzkoari dagokion zatia ez zen bapatean eraiki, erliebe aldetik zailtasun handienak aurkeztu zituena izan baitzen. Tunelak, zubiak... eraikitzea ezinbestekoa izan zen trenen iragana ziurtatzeko; zubi horietako bat Ormaiztegikoa dugu, harana gainditzeko eraikia eta gaur arte lanean diharduena.

Jatorrizko ezaugarriak

Ormaiztegiko zubiaren eraikuntza gaur egun desagertua dagoen “Camino de Hierro del Norte de España” Konpainiaren esku egon zen. Beronek hasera batetan Beasain-Olalti arteko tren lerroaren eraikuntza garaiko ohiturari jarraituz, lekuko kontratisten batzuen esku jarri zuen, baina laister konturatu ziren ezarritako epeetan amaitzea ezinezkoa izango zela. Honela, aipaturiko Konpainiak obra ezarritako epeetan eraikiko zuen kontratista bakar baten bila jo zuen, Frantziako “M.M. Ernest Goion et Cie” kontratista auke-

Ormaiztegiko zubia: 130 urtez trenen ibilbide

ratuz. Ormaiztegiko zubia aipaturiko kontratistaren Batignolles izeneko tailerretan eraiki zen eta diseinua bertako ingenierorik ospetsuenak burutu izan zuen, hau da, Lavalley jaunak. 1860-64 urte bitartean burutu zen zubia eraikitzeke lanak izugarriak izan ziren, herriak urte haietan eguneroko bizitzan benetako eraldaketa bizi izan zuelarik (gizonezkoek baserria utzi behar izana zubian lan egiteko, herrian atzerri-tarren presentzia handia, teknika eta baliabide erabat atzeratuak...). Gure herriaren gainetik igarotzen den zubi hau, garai hartako eraikuntza erabat tipikoa da leihosarezko gapirio eta milaka errematxerekin 5 metalezko zatiz osatua, hasera batetan “silleriko” harritz eginiko 4 zutabeen gainean eraiki zen, bere eraikuntzan 100.000 k. burdin baino gehiago erabili ziren eta 289 m.-ko luzera eta 34 m.-ko altuera du.

Guda zibilak lurreratua

Gure zubiaren historia ez zen eraikuntza batekin amaitu. Guda zibilaren garaian, herri-tar garaikideek hain gogoko duten 315-IX-15an Mola general faszistaren tropak aurrera zihoazela eta Bergarako “Altos Hornos”eko sopletista batzuk, Zumarraga eta Olaltiko beste batzuk aukeratu eta zubia moztera behartu zituzten. Leherkaririk erabili ez zuten, zubia ez zen erabat deuseztua izan, bi zatitan moztua baizik: irailaren 15ean lehen zatia (Madril aldekoa) moztu eta lurrera erorita gelditu zen,

hurrengo egunean beste zatia moztuz ertza lurrean sartuta geratu zen. Ebaketa horretan parte hartu zuten langileek, lana bukatu ondoren argazki bat egin eta handik egun batzuetara Baionako egunkari batetan agertu zen. Ekintza hori burutu zutenetarikoa batzuk harrapatu eta afusilatu egin zituzten; horietako bat Ormaiztegiko kanposantu aurrera ekarrita gainera. Zubiaren berreraikuntza lanak berehala hasi zirenez, 37ko otsailaren 1ean alde bateko norabidea zabaldu zuten Mola generala eta beste zenbait pertsonai ospetsu bertaratu zirela. 1941ean eraikuntza osoa bukatua gelditu zen, jatorrizko zubiari hormigoizko 5 zutabe berri ezarri ondoren.

Ondare historikorako bidean

Azken urteotan trenen joan-etorri-rako zubi honek izan duen gaitasuna aztertu ondoren, trenentzako ibilbide berria izango den zubi berria eraikitzea erabaki zen. Beraz, 1864ean eraiki zen lehen zubiak aurtengo urtean beste pareko zubi bat izango du. Hala-ko eraikuntzetarako burdina asmatu eta handik urte gutxira eraiki zenez, garrantzi arkitetkono handikoa dugula azpimarratzen dute jakitunek; ondorioz Euskal Herriko arkeologia industrialeko eredu bakarrenetarikoa dugu. Zubi berriak bere zeregina trenen joan-etorrian izango du, zaharra berriz, ondare historiko bihurtuz Ormaiztegiko herriaren izena lau haizeetara zabalduko duen eraikin historiko guztiz berezia izango dugu. Bere balio historiko-sozialaz oharturik, zubia mantentzea erabaki izan duen Ormaiztegiko herriak sentimendu berezia erakutsi izan du berarekin; guztiok sentimentu berarekin jarrai dezagula E.H.-ko eredu hau goraipatzen.

EUSKAL ZERAMIKARI-ELTZEGILE PROFESIONAL BAKARRA ZEN ZEGAMARRA

Gregorio Aramendi zenaren ahaleginak gogoan

Gregorio Aramendi Arregi zegamarra, euskal zeramikaegile bakarra bere garaian, hil berri zaigu, 72 urte zituela. Tartedikoa nuen. Beti esan eta esan, elkarrizketaren bat egin beharko geniola, baina Heriok aurre hartu zigun. Bihoa hemendik, besterik ezean, bere biografia, merezi zuen eta.

Tradizioa eta plastikoa

Aita itsasondarra zuen; ama, berri-
riz, Zegamako Intxaustikoa. Arregi-
tar osabengandik ikasi zuen ofizio ho-
ri. Izan ere, 1850 inguruan fundatu
baitzuen zeramika tailerra bere birrai-
tonak; tradizio eta banaketa sare bat
bazuten, beraz. Industria "txikia" izan
arren bere garaian, Gipuzkoako tradi-
ziozko bakarra zen eta familia osoa
bizi zen hortik, "bertako papeleran
baino jornal handiagoa atereaz gai-
nera", esaten digu bere seme Luisek.
Buztina baserringuru eta Aizkorripe-
tik ekartzen zen kantidade handitan, 2
eta 4 itzain ere ibiltzen omen ziren ga-
rraioan. 6 langile etengabe lanean eza-
gutu zituen gaztetan. Bertako galbahe-
tan kolatzen zen buztina, errotan lur-
zotalak txikitu eta gero lantzen zen.
Oraindik geratzen da Intxaustin 100
urtetik gorako tornu zaharra: gurpila
(oso gastatua), ardatza eta platoa.

Gregorio gazterik hasi zen arte hau
lantzen; 1958an, ordea, utzi egin behar
izan zuen, familia aurrera aterako ba-
zuen. Hortik ezin bizi: plastikoak
ehundalako kolpea eman zion eltze-
gintzari. Taxista-lanetan 22 urtez aritu
ondoren, 80an Kultura Sailak labe bat
oparitu zion. Horrela animatu zen be-
rriz eta, ia kolpetik etorri zitzaion he-
riotzako ordura arte (94-XI-28) bertan
jarraitu zuen, pitxarrak, botixek, ties-



"Hilzorian zegoen lanbidea pizten saiatu zen"

toak, eltzeak, eltxitxuak, anforak, ka-
tiluak, lapikoak, kafe-jokuak, entsa-
laderak, mami-poteak, txotx-ontziak
eta zer ez sortuz. Bai eta arte lanak ere:
kainu askoekiko pitxar bat, eskultu-
ratxo bat, familia guztia errentzako ba-
xera osoak, e.a.

Egikerari eutsiz

Kutxa-rekin akordioaren batetara
iritsita, tornu elektrikoa, labea eta
errota txiki bat jarri zioten duela urte
batzuk eta zeramika ikastaroak eman
zituen. Debako Arte Eskolako Koldo
Merino eta beste zenbait artistei gal-
tzeaz zegoen ofizioa irakatsi zien joan
aurretik (Legazpi eta Urretxuko lagun
pare bati 3 urtez eta beste hainbati hi-
labeteko kurtsiloak). Bestalde, eta az-
kenaldian batipat, artisau azoketatik
barrena (Errenteria, Tolosa...) ibili zen
Aramenditarra, lan-erakusketak egin
eta salduz. Inguruan baino gehiago
preziazten omen zuten hortik zehar
gainera.

Bera salmenta zuzenaren aldekoa
zen. Izan ere, Zegama txikia eta apar-
tatua izatean, gutxi saltzen zuen etxe-
ko dendan; pasoko jendeari, batipat

udan, saldu ziezaokeen bakarrik ia.
Dendak beren marjenak jartzen dituz-
tela eta prezioak goraka egiten dutela,
zioen. Sortzen zituen piezak apenas
pagatzen zuten bere burua, prezio oso
bajuetan saltzen ziren. Betikoa, lan
asko hain diru gutxiren truke. Buztina
Geronatik bidaltzen zioten eta kata-
lanak, haiek bai, asko interesatzen zi-
ren Zegamakoaren lanen gainean.
Zerbait badakite artisautza kontutuan.

"Goizean goizetik gauerarte, tor-
nuan jarri eta hor segi. Beti laneko
pentsamenduarekin zegoen", dio ha-
ren semeak. Izan ere, artesauarena
ezezik artista sena baitzeukan.
"Erraza emango du, baina buztina
altxatu egin behar da, horiek esmal-
tatu...". Sorgina da buztina. Garai ba-
tean ezagutu zuenaren aldean, azke-
naldian "hoby"z aritzen zen eta den-
bora sobratzen zitzaion saltzen zuen
gutxitxo hura sortzeko. Lanbide hau
hilzorian dagoela zioen: "nirekin
ikasitakoak eskolak sortu dituzte eta
umeak bertaratzen zaizkie. Baina
hauek zerbait aurkitzen dutenean
akabo, hau ahazten dute". Semeek ere
ez zuten ikasi tradiziozko lanbidea,
lanik asko baitzuten fabrikante eta ba-
serri-lanetan.

Egun, ordenadore bidez ere egin
omen daitezke eltzeak. Euskal artea-
ren sena eta era bereziak gordeko ote
dituzte beroiek ordea? Orain, gauzak
Gregorio zena desagertutako egunean
bezalaxe daude Intxaustiko beheko
planta osoan: zeramika lanak etxerako
gorde dituzte, ezer ez dute salduko
etxeok. Agian, bertan erakusketa-
ren bat, edo beste zerbait egitea pen-
tsatuko balitz, tailer horretan badago
zer ikusi eta zer ikasia eta (zenbait as-
mo badituen) Zegamako Udaletik
edota instituzioren batetik idea edo
proiektu serioren bat etorriko bali-
tzaie... Guk uste izango lukeela segi-
darik euskal tradiziozko zeramikak.

 Jon Mikel Arano

Ba al dakizu...?



JOSE MIGEL OTAMEN-

DI beasaindarra hilotz aurkitu zuten urtarilaren 31an Lasarte inguruan, Oria ibaian. Gogoratu iragan urtarilaren 6an desagertu zela Lazkao eta Beasain artean, istripu bat izan eta Agauntza ibaira erori ondoren. Urak bera eraman aurretik 15 hilabeteko alaba salbatu zuen hildakoak. Bilaketa lanak etengabeak izan ziren geroztik.

GOIERRIKO INDUS-

TRIA-GIDA gauzatzeko asmoak ditu "Goieki"k, hau da, eskualdeko garapen agentziak. Helburua gida edota datu-base bat egitea litzateke; bertan industriak, zerbitzu enpresak, bulego mota ezberdinak, e.a. joango lirateke eta beren inguruko datuak. Goierriko enpresa guztiak eta bakoitzak hori burutzeko jarri duten Garbiñe Telleriaren bisita jasoko dute laister.



ANTZIZARGO LOTU-

RA ez da irekiko, momentuz. 1.400 milioi hormigoizko habe eta obra "faraoniko"etan jarri ondoren, badirudi Diputazioak ez daukala dirurik horren jarraipena (Antzizar-Alegi zatia) burutzeko. Errepide hau etorkizuneko balizko Beasain-Durangokoa izango da. Bienbitartean, Iurre eta Katea ingurua kolapsaturik geratzen da autoz zentibait ordutan, horrek ekar lezazkeen arriskuekin.

BEASAINGO GURU-

TZE GORRIAK postu berria du da goeneko Anbulatorioaren ondoan. Bertan 4 lagun egongo dira etengabe

borondatezko eta obligaziozko zerbitzuak txandaka betez. Inaugurazio egunean, Gurutze Gorriko ordezkariak udaletxean bildu ziren eta ondoren materiale desberdinak erakutsi ziren. Goierriko Objetoire Taldeak egun hori aprobetxatu zuen erakunde horri bere salaketak egiteko. Beasainen Ordezko

Zerbitzu Sozialean dabilzan 47 lagunei buruz "2 urte, 4 hilabete eta egun bateko gartzelaratzearen mehatxupean" dabilzala diote GOTekoei, "Gurutze gorriak ekimen desinteresatua dela adierazten duen bitartean".

LAZKAOKO BERRI.

Urtarrileko eta azkeneko Udalbatzan gaitako bat herriko biztanlegoaren zentsuaren eguneratzea izan zen, urtero lege. Urte haseran Lazkaok 4.989 bizilagun zituen erroldaturik, alkatearen hitzetan. Bestalde, Plenoak, idazkari-kontuhartzaile posturako, duela 8 urtez geroztik behin behineko egoeran idazkari lanetan ari den Iñaki Eskisabel ataundarra Diputazioari proposatzea erabaki zuen.

ORDIZIA

AUTO-ESKOLA

Aita Urdaneta ☎ 88 72 76

-EZKURRA -ATEAK

Ateen ezartze eta salmenta
Tarima eta parketak



Tfnoa.: 16 07 50 Domingo Unanue, 2
Faxa: 88 09 13 ORDIZIA

ZUHAIZKI

Zurgindegi Mekanikoa



-LEIHOAK, ATEAK
ETA ABAR

-ESKAILERAK
NEURRITARA



Beko kale, z/g.
Tel. 88 71 26
Faxa: 16 10 77
ITSASONDO
(Gipuzkoa)

**ARKO (ARRASATE PRESS ETA ARRASATE TELEBISTA)-K
ERREDAZIO-BURU LANPOSTUA BETE BEHAR DU**

Baldintzak:

- * Kazetaritza eta herri komunikabideetan esperientzia.
- * Euskara maila ona.
- * Gidatzeko karneta.

Baloratuko dena:

- * Arrasate ezagutzea.
- * Harremanetarako gaitasuna.

Lanpostuaren bete beharrak:

- * ARRASATE PRESS-eko zuzendaritza eta ARKO-ko medioen erredakzio buru.

Kurrikulumak:

- Epea: otsailaren 15a.
- Helbidea: Azoka kalea, 1
- 20.500 Arrasate
- ☎ (943) 77 08 15



JOXE MARI AGIRRE, ataundarrak kezka apur bat badu, baina pozik agertzen da Kultur Sailburu-ordetzotza egitekotan den honetan. *"Kulturan ez gara zerotik abiatzen. 10-12 urteetan zehar egindako lana dago, ohitura, bide eta joera batzuk, hor daudenak. Baina bestetik gauza berriak daude eta beste era batera diseinatuko da dudarik gabe. Gauzak ezin dira egun batetik bestera aldatu eta epe erdira begiratu behar duzu. Egun bizi dugun egoera ikusita, beste kultura berri bat sortzen hasi behar dugu, administrazioaren papera zein izan behar duen zehaztuz",* adierazi dio "Galtzaundi"ri. Herri komunikabideok betetzen dugun lana txalogarria iruditzen zaio "Txato" Agirreri.

ABALTZISKETAKO TXANTXOAK. Otsail txiki honen buruan zenbait diapositiba emanaldi izango dira Zaldibian. Horietako emanaldi bat Abaltzisketako txantxoei buruzkoa izango da. Dakizuenetz, Abaltzisketak antzina-antzinako ohitura gordetzen du: Txantxoak. Praka zuri, painelu, txapelasare bordatu eta abarrez jantzirik, baserri baserri ibiltzen dira ihauterietan, dantza berezi bat eginez: makila dantza. Ohitura horren geinean besterik jakin nahi lukeenak jo



beza hil honen 22an, iluntzeko 7:30etan, Zaldibiko Kultur Etxera, esan bezala hantxe emango baita bere historia, diapositiben bidez.




PATXI ZUBIZARRETA idazle ordiziarak Tolosako Antonio Maria Labaien narrazio laburren saria irabazi berri du. Gaur egun Gasteizen bizi den idazleak "Eztia eta ospina" ipuina aurkeztu zuen eta epai-mahaiak lanaren "elegantzia eta egokitasuna" saritu zuten. GOIERRITARRAko

Erredazio Batzordeko kidea dugun Zubizarretak adierazi duenez, "ukitu lirikoa eta freskotasuna" batu nahi izan ditu. Ipuinak gazte marrokiar baten bida eta abenturak dakartza eta "Alberdania" etxeak emango du argitara uda aurretik. Gainontzean, "Aladdin" ari da euskaratzen Patxi eta laister bukatuko du. Geroari begira, "asmo txiki batzuk" badituela gaineratu du.



IRATI ETA EKAITZ GOIKOETXEA 10 eta 14 urteko beasaingarrek eraman dute baikotzak bere mailan 1. eta 2. sariak Lauaxetaren oroipenean Laukizen (Bizkaia) antolatzen den ipuin lehiaketan. Bertan Araba, Gipuzkoa eta Bizkaiko 146 partaide izan dira. Bi lanak, ildo ezberdinetako kontaketa dotore eta egokiak dira; natura eta ekologiaren alde dihardute.

NESTOR BASTERRETXEA pintore eta eskultorearen obrak ikus daitezke orain dela egun batzutatik Beasaingo Usurbe Antzokian, hila 26a arte ikusgai. Aspaldiko eskultura multzoa, gaur egungo collageak, e.a. izango dira erakusketan.



- Igeltseritza lan mota guztiak
- Etxegintzarako materialak, azuleju eta zoruak
- Bainugelarako tresna, iturri eta gehigarriak
- Hidromasaia bainerak eta saunak
- Subaju eta ikatz eta egurrezko sukaldeak



**Barandiaran
ZERAMIKAK**

Senpere, 7 ☎ 88 79 72
BEASAIN

J. M. OLANO GAINZARRA, AMNISTIAREN ALDEKO BATZORDEEN BOZERAMAILEA:

“Amnistia, herriari zor zaizkion eskubideak gauzatzea da”

Burgosko prozesu garaian hasi zen politika gaiez interesatzen Juan Mari Olano. Geroztik, PMtan sartu, 9 hilabete espetxean pasa, ondoren erbestea eta 78an Maximo Aierbe ataundarra eta bera izan ziren demokrazi garaiko lehen atxilotuak. Bost urte t'erdia barruan egin eta kaleratu ezkerotik Amnistiaren aldeko borrokan ari da buru belarri. 86ko batzarra ezker, “Gestoren” bozeramailea da.

GOIERRITARRA.- Presoak kalera ala presoak Euskadira?

Olano.- Ez bat eta ez bestea, Amnistia. Hori da gure borroka. Sakabanaketaren ondorioak latzak dira bai presoentzat, bai sendiartekoentzat. Horri erantzuten dio presoak Euskadira erreibindikatzeko denean, euskaldunak direlako Euskal Herrian egon behar dute. Ez hori bakarrik, Euskal Herriko instituzio eta botere politikoen ardura izan behar du pertsona horien funtsezko eskubideak errespetatuak izatea. Presoak EHra ekarri orain baino politika penintzeriario bortitzago batekin egon ditezke. Beraz, hori ez da soluzioa. Presoek zigor bat jaso dute eta zigor hori betetzera beste ezertara ezin ditu behartu legalitateak, zigor gehitu horiek desagertu egin behar dira.

Beste asunto bat da, “presoak kalera amnistia osoa”, EHaren behar politikoari ez zaiola erantzun esan nahi du. Horrek hainbat gauza sortzen ditu, tartean presoak. Baina azken finean amnistia da lortu beharrekoa, EHak bizi duen egoera politiko honen irtenbidea amnistia delako. Ez amnistia, presoak kartzelatik atera eta errefuxiatu eta deportatuak itzuli ahal izatea bakarrik, amnistiaren edukin politikoa herri honi zor zaizkion eskubide demokratikoak gauzatzea da. Eta gure borroka hori da azken finean.



“Presoen aurkako bortizkeria guzti hori, herri hau txantajeatzeko mekanismo bat besterik ez da”.

G.- Kartzeletako egoera asko aldatu al da?

O.- Ni 83an atera nintzen eta orduan ere sakabanaketa maila bat eginda zegoen. Baina nahiz eta sakabanatuta egon kartzela bakoitzean preso multzo handia ginen eta elkarrekin egoteak indar haundiagoa ematen zigun. Geroztik zalantzarik gabe, presoen bizi baldintzak izugarri aldatu dira eta kasu guztietan txarrera. Francoren garaian ere, presoak errespetatuak ziren kartzeletan eta ez ziren horrelako bortizkeri iraunkorrik erabiltzen presoen aurka. Gaur egun errekor guztiak hautsi dira. Presoak apurtuaz, kolpatuaz, jipoituaz, borondatea aldaeraziz... Presoen aurkako bortizkeria guzti hori, herri hau txantajeatzeko mekanismo bat besterik ez da. Herri hau ez dago amore emateko eta horregatik sufriarazten zaie presoei hainbeste.

G.- Latasa ordiziarra ere hor dago.

E.- Honi Euskal Preso Politikoei gorrirako mezuak erantzuten dio ondoen: “Ohartxo honen bidez Jose Miguel Latasa eta Kepa Fernandezek kanporaketan berri eman nahi dizuegu. (...) Latasa, nahiz eta izkutan izan, «Instituciones Penitenciarias» delakoak gure kontra daraman estrategiarekin

kolaboratzaile aktiboa izan da. Gu ez gara detailean sartuko, irakurketa anekdotiko batean ez erortzeko, baina Avilesean peoi bat bihurtu da Kolektiboaren diagnostikoa egiteko, bai eta kontraesanak sortarazteko. Kolektiboaren gainetik jarri du bere irteera pertsonala eta hori ezin onartuzkoa da. Gai honen inguruan dexente mintzatu da leku askotan, asmo hoberenekin batzutan, saltsa nahasteko besteetan. Eta argi eta garbi utzi nahi dugu guk ez dugula Kolektibotik kanporatu bere ideia edota ikuspegi politiko kritikoengatik, baizik eta Kolektiboaren aurka eman dituen urratsengatik. Avilesean eskutik baldintzak landu eta Kolektiboan pitzadurak sortzeko ahalegi netan ibili baita”.

G.- Militantzian aldaketarik eman al da?

O.- Duen konpromezu mailak ematen dio edukina militantzia hitzari. Gestoren motorra herri eta auzo askotan dagoen gizon-emakumeak dira. Gizarte mediatiko batean bizi gara, eta edozein erakundek bezala Gestorek ere behar dute bere irudi publikoa egingo duten pertsonak, ni horietariko bat naiz. Nik egiten dudana lana, herrietan egiten dutena egingo ez balute, hutsala izango

litzateke. Beraz egia da, jende publikoa batzuentzat mitifikatu egiten dela. Ni pozik nabil, proiektu kolektibo honetan sinesten dudalako. Gestoretan dedikazio osoarekin lan egiten dugunok 90.000 pezeta kobratzen ditugu. Ez da kopuru handia bizitzeko, baina ahal bagenuen ez genuen ezertxo ere kobratuko, beharrak handiak dira eta.

G.- GAL-aren auzian noraino jakingo da?

O.- Orain plazaratzen ari diren kontu guzti hauetaz hipotesia asko egin daitezke. Baina ez naiz horretan sartuko, denborak erakutsiko du. Hala ere, Gestoren aldetik eta GALEk kaltetutakoan aldetik esan, ez dagoela mendeku animorik edo gure helburua ez dela jende guzti hori kartzelan egotea. Baizik eta, guda zikin hori posibilitatu duten mekanismo guztiak desaktibatzea, beste batzuk sortu ez daitezen.

Jarrera lotsagarriak badaude, adibidez, EAJrena. Guzti horren gakoa badakite non dagoen: fondo erreserbatuetan. Hori ikertzearekin oso argi ikusiko litzateke GALEn nondik norakoak eta non dauden ardura politiko eta penalak. Eta egia da EAJren Madrileko parlamentarioek PSOerekin batera bozkatu zutela fondo erreserbatuak ikertuak izan ez daitezen. Sakoneraino heltzeko inolako borondate politikorik ez dutela erakutsiz. Ardanzenaren gobernuak berak ere baditu fondo erreserbatuak. Beraz fondo erreserbatuen izaera, legalki justifikatu ezin dituen ekintzak finantzatzea da.

G.- Nola ikusten duzu Garzonen lana?

O.- Espainiar estatuan Garzon pertsona diferentea da, baina guretzat berdin berdina da, sistema barru-barruko gizona. Guk konstantzia daukagu Garzon dela Buerenekin batera Espainiar estatuan torturatu gehien ikusi eta entzun dituen pertsona. Eta inoiz ez du bere kabuz ikerketa prozesurik ireki torturari buruz. Alderantziz, torturatuak aurrean dituen txiste txarrak egitera ere ausartu izan da. Momentu honetan



“Garzon eta Bueren dira torturatu gehien ikusi eta entzun dituztenak”

GAL auzia eramatea tokatu zaiola eta heroi bihurtu?

G.- Juan Mari Jauregi legorretarrak ez dio hori, torturari buruz.

O.- Bitxia gertatzen zait Juan Mari Jauregi guardia zibilekin prentsaurreko batean euskaraz Espainiaren errepresioa esplikatzen ikustea. Torturarik ez dagoela esan zuen, gero eransten dio, torturarik balego, bera arduratuko dela guzti hori deskubritzen eta errespontsabilitateak depuratzen. Jan du hitza. Zeren Hernaniko mutil bat atxilotua izan zen, eta tortura horiek salatu zituen askatzean. Gero Jauregik etxera deitu zion mutil horri, berarekin hitz egin nahi zuela esanez. Bera oraindik torturen efektearekin, ez zion kasorik egin eta Jauregik berriro deitu zion, telefonoa torturagailu bilakatuz. Mutila Gestoretara etorri eta abokatu batekin Jauregiaren aurrean azaldu zen. Testigantza eman eta guardia zibilekin kontrastatuko zuela esan zuen.

Legorretarrak beste edozein Gobernadore Zibilek bezala, daukan fun-

tzioa, Komandantzietan gertatzen dena estaltzea, makilatzea da. Berak inork baino hobeto daki, herri hau zapaldua dagoen eta borroka egiten duen bitartean, Estatuak tortura erabiliko duela eta tortura horren erabilpena onartua dauka aurrez, bestela nola kristo lortu behar dute informazioa? Teknika mailak ere hobetzen ari dira zalantzarik gabe, geroz eta zailagoa izan dadin torturatua izan zarela frogatzea.

G.- Ertzaintzak ere torturatzen duela diozue.

O.- Ertzaintzarena ez da gaurkoa, Juan Calvoren kasua hor dago. Ertzaintzak atxilotuak izan direnengatik jasotzen ditugun testigantzetan konstatatzen ari gara, erabiltzen duten metodoa tortura psikologikoa dela, ondorio latzak uzten ditu. Golpeak eta horrela-

koak sendatzen dira, baina barne zauriak dira gehien irauten dutenak. Alde horretatik, azken sarekadan Ertzaintzak 16 detenitu zituen eta 16ak eman dute testigantza tortura psikologiko izugarriak egin dizkiotela. Eta erabiltzen dituzten drogei buruz ikertzen ari gara espezialistekin. Ertzaintzak oso ongi daki pertsona bat apurtu daitekeela 3 egunetan eskurik gaineen jarri gabe. Erabiltzen dituzten teknikekin benetako espezialistak dira eta hor diploma atera dute beste polizia guztien gainetik.

G.- Atutxa aurrez-aurre izanez gero, zer esango zenioke?

O.- Uste dut kapaz izango nintzatekeela nire ikuspegia eta eskuartean ditudan datuez, gutxienik berak daraman politikari buruz zalantzak sortzeko. Polizi mundu itxi batean bizi dira eta mundu horretan duten legea besterik ez dago inguruan, ez dute ikusten milaka familietan duten ondorioa. Suposatzen da bihotz txikiren bat izango dutela nonbait eta zalantzak sortuko nitzkieke. Baina zera esango nioke: ez izateko hain ahozabala, ez duela inolako esku-biderik duen kargu instituzionala milaka pertsona insultatzen erabiltzeko.

 Loinaz Agirre eta Mikel Albisu

Idiazabalgo Lurdes Intxausti botilero ETBn

Lurdes Intxausti idiazabalgarra aski ezaguna izango duzue, ziurrenik ere. '22ra', pilotarekin zerikusia duen lehiaketa aurkezten du ETBn, beste bi lagunekin batera. Ez da edarizalea, baina botilero lana betetzen du. Lurdesek solasaldi batean, programaren nondik-norakoak kontatu dizkigu.

Ongi prestatu eta 'casting' batera aurkeztean ETBko ateak parez-pare ireki zitzaizkion Lurdesi. Honela telebistako lehen esperientzia Galakt-Hika programan izan zuen. "Nik Sonic panpinaren papera egiten nuen. Aurpegiak ez zitzaizdan ikusten, mugimenduak soilik, baina esperientzia interesgarria izan zen. Gainera, Galakt-Hikatik sortu zen pixka bat, '22ra' programan sartzeko bidea. Bi lagun aurkeztu ginen eta, lana eta zorte pixkat tarteko zirela, ni aukeratu ninduten botilero lanerako".

Aldez aurretik antzerkian ere ibili izan da. 3 urteko titulazioa du. Honek lasaitasunaren aldetik eta gauza ezberdinak jasotzen ikasteko asko lagundu diola aitortzen du, telebistan ere beti egiten bait da antzerki piskat. Badago ordea bi lan hauen artean ezberdintasunik: "telebistan rol bat betetzea mu-



gimendu aldetik askoz ere mugatuagoa da, kamararen menpe bait gaude".

'22ra', 22 tantotara iristea helburu duen lehiaketa bat da. Horretarako frogaz ezberdinak gainditu beharko dituzte lehiakideek. Ordubete inguruko iraupena du eta egitura aldetik, pilota partidu baten antza du, apostu eta guzti. "Lehiaketa honen nahia kanpoko gauzak ahaztu eta une batean ikusleagoa entretenituta edukitzea da", dio Lurdesek.

"Beste aurkezleek, Joxe Felipe Auzmendi eta Iñaki Beraetxe, nirekin konparatuz duten esperientzia handia da, ezberdina, eta ni berria naiz, baina giro aparta dago geure artean. Ama hizkuntza euskara izateak, asko la-

guntzen du, eta hau lehiakideek ere eskertzen dute".

Hasieran azkarrago amaitzea pentsatuta bazegoen ere, izan duen harreragatik martxorarte luzatuko da grabaketa. "Hori guztiz baikorra da, eta niretzat konkretuki, praktika gogor bat izan arren, ikasten ari naizelako. Orain arte aurkezle lana soilik egiten duten neska poxpolinak ikusten ohituta gaude. Nik aurkezteaz gain, frogak ere egiten ditut. Gizonaek egiten dituzten gauza berak egin ditzazkegula frogatu nahi dut, alegia ni ez naizela 'azafata' soil bat. Badirudi horrek aldaketa handia suposatzen duela, baina jendearekin atsegin zaio. Hori dirudi behintzat".

Elkarrizketari amaiera on bat emateko, holako kasuetan ohi den bezala, anekdota edo bitxikeria bat kontatzeko eskatu diogu: "Bat baino gehiago ditut buruan, baina batek grazi berezia egin zigun denoi. Gidoiaren arabera nik esan beharrekoa ahaztu zitzaidanaren itxura egin behar nuen. Zuzendariak ordea, benetan ari nintzelakoan grabaketa moztea eskatu zuen. Bigarren aldian ez zen horren natural atera".

 Estitxu Imaz

ALUMINIO ETA PVC AROZTEGIA

Eskatu aurrekontuak konpromezurik gabe

IBABE INDUSTRIALDEA ☎ 888101 LAZKAO

REHAU

AZKARATE

POL. INDUSTRIAL IBABE
TFNO.. 88 81 01 LAZKAO



ANZIZAR, S. A.

Autoelektrizitatea
eta mekanika

Volkswagen
taldea

Beasain-Zumarraga, 46 Kma.
☎ 88 17 00 - 88 17 04 BEASAIN

IBAI - ONDO



ZURGINTZA
HALTZARIAK
P.V.C.ko LEIHOAK

Tailer eta erakusketa:

Antzizar Auzoa, z/g.

Tfnoa: 880543 BEASAIN

Sagardotegia



aulia

Aulia-enea

Teléfono: 80 60 66 LEGORRETA

JAUREGI TOLDOAK s/n

Tfnoak: 880243 - 880133
BEASAIN

Merkataritza ganbararen saria Juan Elgarrestari

Joan zen ostiralean Gipuzkoako Merkataritza Ganbarak Juan Elgarresta jauna omendu zuen tradizioari eutsiz larruzko abarkagintzan egin duen lanarengatik. Hau dela eta, artisautza lan honi buruzko berri gehixeago jakitearren elkarriketa hau egin diogu:

G.- Noiztik ari zara langintza honetan?

E.- Beno, baserrian nere aitona zena aritzen zuan eta urtetan aurrera eta behatzak gogortu zitzaizkioanean hasi ninduan berari laguntzen, gutxi gorabehara hamabiren bat urterekin. Baina gero, aitona utzi egin zioan eta neuk ere bai, eta 1980. urtean Urretxuko "Euskal Jaiak" zirela eta, esan zidatean aterako al ninduan eta hantxe atera ninduan jendeaurrean lehenengo aldiz nere aitarekin eta amarekin batera.

G.- Nolabait, herri-erakustetak zirela eta ekin zenion berriro?

E.- Bai Urretxuko horren ondoren, Atxukarrok "Kilometroak" zirela eta Tolosara joateko eskatu zidaan eta ho-



"Atxukarro"ren bultzadaz hasi zen herriz herri.

rrilaxe hasi ninduan gaur arte herriz herriko erakusketetan parte hartzen. Hasieran gurasoekin batera ibili nin-

duan, urte pare batean edo, eta geroztik bakarrik ibiltzen nauk, inoiz semeren batek laguntzen bazidak ere.

G.- Zein da zure helburu nagusia langintza honetan?

E.- Tradizioari eutsi besterik ez, hortik ez baitzegok bizimodua ateraterik. Ez duk ia batere saltzen, oso oinetako irristakorra baitek jantzita ibiltzeko. Ohitura bati eusteagatik ari nauk.

G.- Gerora begira langintza honetan segitzeko asmotan?

E.- Bai orain arte bezalaxe, deitzen didaten lekuetara joango nauk eta etxean ere tarteka ari tuko nauk. Honetaz gainera, artilearekin sokak egiten ikasten ari nauk eta hau ere martxan jarri nahi diat.

G.- Zenbat denbora behar izaten da abarka pareia egiten?

E.- Hasi eta bukatzen hiru ordu edo.

 **Gabino Murua**

Gozatzeko.



Dantza ikastaroak Maizpiden

Joan den urtarilaren 18tik otsailaren 2a bitartean merengea, rumba eta salsa "landu" ahal izan dira Lazkaoko Maizpide euskaltegian. Ana Alonso irundarrak eman zuen ikastaro berezi honetan 55 bat lagun bildu dira (euskaltegiko ikasleez gain lazkaotar dextentek hartu du parte) eta denak bat etorri dira guztiz positiboa izan dela adieraztean.

Ikastaro honek, halere, bere jarraipena izango du hil honen 8tik aurrera, astelehen, asteazken eta ostegunetan hain zuzen ere. Ordutegiari dagokionez, arratsaldeko 6.30etatik 8ak bitartean izango da, gutxi gora behera.

Parte hartu nahi izanez gero, deiezue 889231 telefonora, arratsaldeko 7etatik gaueko 11ak bitartean. Ikastaroa dohainik izango da.

Santa Ageda koplari

Aspaldi galduta zegoen ohitura berreskuratu nahian, 15 bat lagun Lazkaomendin baserriz-baserri ibili ziren Santa Ageda eskean. Goizeko 10etan hasi eta 14.00ak arte, soinu, pandero



Arg.: Karlos Arizabaleta

eta hiru zuzeneko koplari (Andres Barandiaran, Ibon Goikoetxea eta Jon Lasa) lagun zituztela jardun zuten. Baserriarrek eskuzabal eta gustora hartu zuten bisita.

Arratsaldean, beti bezala bi talde ibili ziren kantari herriko kaleetan. Koroak alde batetik eta amnistiaren aldekoak bestetik.

Festak prestatzeko bilerak

95eko San Prudentzio jaiak gainean direla eta hauek prestatzeko bilerak hasi dituzte Udaletxean. Parte hartu nahi dutenek, Udaleko dinamizatzailearengana jo dezakete.


✍ Aitzol eta Joxepa

ORMAIZTEGI

Mendizaleen martxa martxoan

Martxoaren 26a egun handia izango da Ormaiztegiko Kirol Elkarteko mendi sailarentzat, Gipuzkoako Eskolarteko Jokuen barne, herriko mendietan zehar martxa erregulatu bat antolatuko bait du, sail hori zertarainoko gai den erakutsiz. Izan ere, ez du erronka makala aurrean. Iaz Ordizian eginiko martxan 503 partehartzaile izan ziren eta OKEko antolatzaileen hitzetan marka hau berdindu edo gaunditzea espero da, eguraldiaren laguntzaz. Gipuzkoako eskoletako ikasle guztiek parte har dezakete zentru hoietan izena emanaz, baina egunean bertan ere izena ematerik egongo da.

Martxa erregulatuaren sistema lehiaketa baten antzekoa da. Iraupena ezin da 4 ordu baino gehiagokoa izan,



bidea hirutan egiteko modukoa izanik. Partehartzaileek taldeka egingo dute ibilbidea, organizazioak emandako txartela kontrol guztietan erakutsi beharko dutelarik. Ormaiztegiko martxaren haserako kontrola herriko enparantzan kokatuko da eta gainerantzekoak, berri, Urbizu, Lierni eta San Es-

tebanen. Gosaltzeko aukera ere izango da, Liernin hain zuzen. Amaierako kontrola, iristen direnentzat, Zubipe kiroldegian egongo da. Martxa honekin batera beste bi ere ospatuko dira Gipuzkoan: Tolosaldean bata eta Donostialdekoa bestea, guztiak Gipuzkoako Mendizale Federakundeak koordinatuak. Martxaren aitzakian, Ormaiztegi biltzen direnek inguruko parajeak ezagutu eta haietaz gozatzeko parada izango dute, hala nola, Zelandita, Arandi edo Arizmendi, hurrengo batean itzultzeko ere. Hainbat herritarrek aukera aprobetxatu eta eza gutzen ez dituzten lekuak ezagutu ditzakete. Adib., antolaketan parte hartuz.

✍ Iñaki Leturia

Idazle gazteak sarituak

Udalak 5. aldiz antolatutako "Beasain Idaz Lehiaketa"ko sariak banatu ziren joan zen larunbatean udaletxean. 24 sari banatu ziren guztira, akzesitak barne, adinen arabera banatutako 3 mailetan. Migel Anjel Mintegi epaimahaikidearen arabera, "*maila nahiko berdintsua izan da eta nahiko lan izan dugu irabazleak aukeratzeko*". Saritu diren lanekin liburu argitaratuko du Udalak datorren ekainean.

A mailan, 14-18 urteko eskualdeko gazteei zuzendua, Beasaingo Txindoki Institutoko ikasleak izan ziren nagusi. 1.go saria Joseba Zubizarreta zegamarrarentzat izan zen; 2.a Izaskun Jauregi lazkaotarrarentzat; eta 3.a Jon Iturriotz beasaindarrarentzat. Maila honetan 5 akzesit banatu zituzten aurkeztutako lanen artean.

Beste bi mailetan beasaindarrek bakarrik izan zuten parte hartzeko aukera. B mailan (11-14 urte bitartekoak) Idoia Aiestaran (Alkartasuna Lizeoa) izan zen irabazle; 2.a Amaia Campo (La Salle-San Jose ikastetxea); eta 3.a Igor Urzelai (Alkartasuna Lizeoa) eta Ander Murgiondoren (La Salle-San Jose ikastetxea) artean erdibanatu zuten. 4 akzesit eman zituzten. D mailan



(8-11 urtekoentzat) azkenik, Irati Goikoetxeak (Alkartasuna Lizeoa) lortu zuen lehen saria; 2.a Lander Muruak (La Salle-San Jose ikastetxea); eta 3. Andoni Argiñanok (Murumendi ikastetxea). Hemen ere 5 akzesit banatu ziren.

'Tubabu' liburuaren aurkezpena

I. Igartza saria irabazi zuen Jon Arretxe basauriarraren 'Tubabu' liburuaren aurkezpena izango da hileraren 10ean Udal Liburutegian, arratsaldeko 7etan. Aurkezpenarekin batera, bertaratzen diren guztiei liburu bana emango zaie.

'Ai geala' irratsaioa

Aurreko kronikan "Ai geala" euskara taldeak larunbatetan Segura Irratian egiteko asmoa duen irratsaioa, goizeko 10etatik 11etara izango zela aurreratu bagenizuen ere, azken orduko aldaketak direla eta, 12etatik 13etara izango da. Datorren larunbateko irratsaioa, sagardoari eta sagardotegiei eskainiko die, eguraldia, paperezko ahotsa, lehiaketa e.a. tartekatuz.

 Loinaz Agirre

**ILEAPAINDEGI
MISTOA**

XerLo

Joan Iturralde, 5-7 (solairu-arteak)
Tfnoa.: 16 11 05 BEASAIN

BERRIZ ARANBURU

ERROPADENDA

Nagusia, 8
Tel: 88 04 53

BEASAIN

 **LANCIA**
ETXE - AZPI

☎ 88 10 61 - 88 29 46
ORMAIZTEGI



GOIERRIKO ZURAK, S.L

Inportazioko egur biltegia
Ohol, aglomeratuak, e.a.

Iribarren, z/g
☎ 88 80 23 LAZKAO

Herriko dantza-taldeen historia labur (eta II)

Ondoren izango ziren talde solte eta banakak bezalaxe, "Iztueta" zuen izena taldeak. Talde honen ekitaldi gehienak hemen Goierri aldean burutu ziren: Ordizia, Lazkao, Idizabal, Segura... Behin batean, Donostian ere izan ziren. Talde honek 5 bat urte iraun zuen. Garai hartan, eta gero ere bai, soldaduskak deseginarazten zituen taldeak. Orduan hasten zen lehengo sakabanaketa. Gainera, kasu hartan, ekintza konkretu eta festa jakin baterako sortu zen taldea, hau da, Iztueta omenaldirako. Hori pasatu zenean, jendea asko hoztu zen.

Joxe Arresek bere iloba Mikel Arre-seri pasatu zion maisutzako testigua. Beraz, 4. talde baten hasieran egongo ginateke. Beti bezala, izen guztiak gogoratzea zaila da. Batzuek eman behar ditugu hala ere: Arotxaneako Joxe Mari Garmendia, Ermentariko Julian Arrese, Aureliano Jauregi, Ibargurengo Santi Etxeberria, Mugertzako Inazio Mendizabal... 20 bat laguneko talde zen. Batez ere Aureskua egiten ziren espezialistak.

Hurrengo pausoa 1.964ra artekoa da. Urte inguru honetan, Don Manuel apaizaren babesean edo, txistulari talde bat sortu zen herrian: Olanoko Inazio Mendizabal, Etxeberriko Joxe Mari Iruin, Aztiagako Joxe Arizkorreta, Beheko Ermentariko Fermin Galarra-ga... Gero, horren anparoan edo dantza-taldea ere sortu zen: Benta Berriko Pello Gurrutxaga, Elizalden bizi zen Leontzio Bodego, Etxeberriko Jose Franzisko Iruin, Olegiko Rufino eta Sebastian Iraola, Beheko Ermentariko Juan Manuel Galarraga, Karteroneko Juan Joxe Jauregi, Olakoerrotako Jexux Erauskin.

Nesken taldean hauek ziren: Arruabarrengo Mari Karmen Aranburu, Zu-loetako Maria Jesus Beloki, Lizarraga-ko Maria Jesus Etxeberria, Agarre-Zaldibiko Maria Jesus Agirre, Arruar-teko Maria Dolores Arruabarrena, Goiko Kaleko Belen Unanue, Iturriondoko Maria Dolores Sukia, Iortza-ko Maria Rosario Ibarguren... Esan behar da neska-mutilek talde bakarra osatzen zutela, Legorretako Jabier Lasa maisuaren gidaritzapean. Bi urte eskas iraun zuen taldeak, nahiz eta bere historia laburrean Donostiako San Telmon

eta Urretxuko Euskal Jaietan dantza egitea lortu.

Talde honekin batera bazen beste bat jende gazteagoz osatua; besteak beste, orain alkatea den Migel Mari Irastorza tartean zen. Espreški aipatzen dut izen hau, zeren 91az geroztik, hau da, Migel Mari alkate egin zenetik, Santa Fe Egu-nean alkateak auresku egiteko ohitura berritu da herrian.

Berriz ere etenaldi nahiko luzea izango dugu, Guraso Elkartearen in-iziatibaz Ordiziako Jesus Mari Garate neska talde bati dantzan irakasten has-ten den arte. Hori baino lehenago Arruarte-ko Maria Dolores Arruaba-rrenak egin zuen intenturen bat, eta tal-detxoren bat sortu ere bai, baina, diru-dienez, dantza soltean ikastera gehiago dedikatu ziren. Izan bat edo beste aipa-tzearen, Marijo Beloki, Marijo Gar-mendia... aipatu beharko genituzke. Beraz, Jesus Garateren aldiari aurkitzen gara. Honek ere ez zuen lortu taldeari benetako sendotasunik ematea. 10 bat neska ziren taldean eta nahikoa azkar desegin zen. Baina talde honetatik atera zen txit frutu interesgarria: Idoia Zoilo. Zaldibiko taldea desegin ondoren, Or-diziako Jakintzara joan zen gehiago ikastera, eta han segitu zuen oso maila bikaina lortu zuen arte. Ordiziakoa amaitu ondoren, Zaldibian ekin zion lanari. 87an 60 haur hasi ziren Idoia-rekin. Hasieran ikastaro batzuk eman zitzaala eskatu zion Udalak. Horri, or-dea, ez zion zentzu handiegirik ikusten eta talde finkoa osatzeko desioa eta as-moa azaldu zizkion Udalari. Horrelaxe ekin zion taldeak sortzeari.

Momentu honetan, adinaren arabera banaturik, 10 talde ari dira dantzan. Badago ahaztu ezin dezakegun datu ku-rioso bat: 3 ezik denak neskak dira. 3 urtetik hasi eta 16ra bitartekoak dabil-tza ikasten eta ikasitakoa plazetan era-kusten. Norbaitek ikertzen segitu nahi balu, hari-mutur gisa aipa ditzagun zaharrenen artetik izen batzuk: Larraitz Garmendia, Ainara Alberdi, Kimetz Etxabe, Izazkun Mendizabal, Saroi Jauregi, Olatz Imaz... 18 bat dantzatako erreperatorioa daukate. Gehienak Gi-puzkoako Dantzak dira, baita, horiekin batera, beste batzuk ere: Zinta-dantza, Sagar-dantza, Agurra, Pello Joxepe,

San Juanen zortzikoa, Kaskarotz, Axuri beltza... Udalak subentziona-turik dago dantza-taldea. Urtean 300.000 pezeta ematen dio; horrekin jantziak eta bestelako materialeak ordaintzeko aina iristen da. Irakasleari ordaintzeko, etab., ume bakoitzak 1.000 pezeta pa-gatzen du hileko. Orain arte asko atera ez badira ere, hasiak daude lehenengo pausuak ematen.

Herria garbi eusteko kanpaina

Zaldibiko Udala urrats inportanteak ematen ari da herriari garbi eutsi ahal izateko. Baina hori ezinezkoa da herri-tar guztiak saiatu ezean. Horregatik, zaborra eta gaineratikoak txukun ga-rraiatzeko modu egokiak gogorazari nahi dizkigu; baita paper-ontzi, komun, pipa-azalak gordetzeko zorroak, etab. nola erabili ere. Bestalde, Euskal Go-bernu eta Diputazioaren laguntzaz in-gurugiro-teknikoa kontratatu du. Tek-niko honek urtebetean jardungo du la-nean, orain dela urtebete 3 herritarrek buruturiko proiektua martxan jartzen.

Kontrolik gabeko zabor isurketak

Sasieta Mankomunitatearen bidez, zaborren tratamendurako soluzioa emanda dagoelarik, onartezintzat jo-tzen du Udalak han eta hemen azaltzen diren zabor-pilak. Gainera, Udalak mi-la pezetatik milioi batera arteko multa jar diezaioke inolako errespetu eta be-girunerik gabe zaborrak nonnahi bota-tzen ari denari. Aldi berean, multaz gain, botatako zaborra guztiak bildu beharko ditu.

Arrantzarako lizentziak

Gaztelu Elkartek segidako ohar hau luzatzen die arrantzarako lizentzia ate-ra nahi dutenei. Otsailaren 20ra arte irekirik izango da lizentzia eskatzeko epea, honako ordutegi honek agintzen duen eran: astelehenetik ostiralera, iluntzeko 19:00etatik 20:00ra. Lizen-tziaren prezioa, berriz, honela banatzen da: EAEko hiru probintzietan, 900 pe-zeta; Nafarroan, 1.500 pezeta; Errioxan, 1.500 pezeta; Aragoi, 1.200 pe-zeta.

 Rufino Iraola

Antzerki garaian gaude, Beasain eta Ordizian



Arantxa Aseginolaza eta Jose Mari Barandiaran.

Orain arte ia beste inoiz ez bezala, Beasain eta Ordiziako kultura sailak elkarrekin bildu eta "Tiempo de Teatro" delako programa antolatu dute, otsaila, martxoa eta apirilean aurrera eramango dena. Bi herriotako eszenategietan txandaka 4 antzezlan eskeinitako dira, horietatik 4 obra euskarazkoak

izango direla. Antolakuntza Arantxa Aseginolaza eta Jose Mari Barandiaran kultur zinegotzien eta Miren Kortaberria eta Iñaki Hidalgo teknikarien gain dago, eta beren ustez apustu latza dute aurrean, antzerki munduan momentuan dagoen hoberena ekarriko baita Goierri: Garcia Lorcaren obra bat, Ttanttaka, Trapu Zaharra, Maskarada eta Karraka taldeak tartean. Teatro lanak hamabostero emango dira, ostegunetan 20.00etan Beasaingo Usurben eta 22.15etan Ordiziako Herri Antzokian.

Ordiziako Mendizaleak: 50 urte

Ordiziako Mendizaleak Elkarteak bere 50. urtebetetzea ospatzen du aurten. Hori dela eta, beste hainbat ekintza programatu artean, Gipuzkoako mugetako mendizale irteerak antolatu ditu. 15 etapalditan burutuko dira eta, bat ezik, goizekoak izango dira, igandez. Dagoeneko burutu dute hirugarren travesia, Igeldo, Orio eta Zarautz bitartekoa, hain zuzen.

Ibarbia etxea mintzagai

Bete dira 3 urte dagoeneko "Ibarbia" edo "Gazteluzar" etxearen ormak erori zirenetik. Zer esan ugari eman zuen gertakizun honek bere garaian eta zer esanik ematen du gaur ere. Dakizueenez, eraikin hau ondare historiko-artistiko bezala jotzen zen eta Eusko Jaurlaritzak zigor espediente bat ere ireki

zuen. Zenbait arazo sortu dira honen gainean, izan ere, interesdunek ez dute elkarren arteko akordioarik lortu; denbora batean etxeak hartzen zuen orubea aparkaleku gisa erabili da, baina berriro itxi dute hesiz.



Badatoz artista berriak

Oihana Cordero Jakintza ikastolako 15 urteko ordiziarra izan da Beasain, Lazkao eta Ordiziako ikaskuntza ertainetako San Juan Boscoko Pintura Lehiaketako garaile. Jaioterriko Pintura Eskolako ikaslea da eta bere denbora librean arte eder eta zail horri eskeintzen dio; gaztea izan arren, koadro dotoreak egiten badaki estilo desberdinetan, bere maisua den Patxi Epelderen esanetan. Animo eta segi horretan!

Mikel Aramendi - Aitor Calvillo



pintura eta gaineztadurak

Aita Urdaneta, 6
☎ 16 17 44

ORDIZIA

BIÑASPRE

USAINDEGIA

EDERGINTZA

OPARIAK

Kale Nagusia, 8
ORDIZIA

☎ 88 13 37



Goierri 15

☎ 88 17 08

Eta orain ORDIZIAN:

MAROTIAS TXIRRINDUAK

Konponketa eta salmenta
Edozein moztako txirrinduak

Filipineta kalea, 22
ORDIZIA

☎ 16 16 27

“Santa Ageda bezpera dugu...”

Aurten ere iritsi da Santa Ageda eta ez dugu ahaztu nahi izan bezperan etxez etxe abestuz joateko usadioa. Aurreko larunbatean bete genuen aurtengoarekikoa, kantu eta eskean. Ohitura hau ez da gure inguruetakoa herrietakoa bakarrik, Oñatin adibidez, ohizkoa baitzen herriko gazteak baserriz baserri kantari ibiltzea. Ondoren afari bat egiteko txorixo, xolomo eta bestelako txerrikiak biltzen zituzten, esker oneko baserrietan baxo-erdi bat edo beste edaten zutelarik. Azken baserrira iristerako batzuen zotiña besteen ahotsa baino ozenagoa izango zen ziurrenik!

Itsasondotarrok, baserriz baserri ez bada ere, San Juango ermittatik hasita herri osoa kantuan igarotzen dugu. Bidean ez da umorerik falta izaten, giroa alaitzeko herriko trikitilariak eta bertsoren bat botatzera ausartzen denik ere ez. Bildutako dirua Karitas eta antzeko elkarteetara zuzentzen da. Herrian abesten ditugun koplak ondokoak dira:

*Zorion, etxe hontako denoi/ oles egi-
tera gatoz;/ aterik- ate ohitura zaha-*



*rra/ aurten berritzeko asmoz. Ez gau-
de oso aberats diruz,/ ezta ere oine-
tako; baina ezta rriz sano gabiltza/ ta
kanta nahi dugu gogoz.*

*Santa Ageda bezpera dugu/ Euskal
Herriko eguna,/ etxe guztiak kantuz
pozteko/ aukeratua duguna./ Santa
maitea gaur hartu dugu/ gure bideko
laguna; haren laguntzaz bete geni-*

tzake/ egun hontako iharduna.

Euskaldunon artean sabela betetzea ere aspaldiko ohitura denez, amaieran afari bat egiten da. Datorren urtea urruti badago ere, badakizue animatzen denak arratsalde on bat pasatzeko aukera izango duela.

Edurne Ayuso

LEGORRETA

Gas propanoari buruzko informazio bulegoa zabalduko da

Legorretan propano gasa kanalizatzeari buruz “S.I.C. S.L.” delako enpresak eginiko inkesten emaitzak ezagutu ondoren, 189 etxebizitza kanalizatzean interesatuak agertu direla ondorioztatu da. Emaitzak ikusita eta lanari ahal bezain laister hasera emateko helburuarekin, enpresa horrek informazio bulego bat jarriko du Osasun Etxean. Leihorainoko kanalizazio, barne lotune, berogailu e.a.-ekiko prezioei buruzko informazioa lortzeko helburuarekin bertara joan zaitezke eta, ados bazaude, lanak hasateko helburuarekin aurrekontratu bat ere sinatu dezakezu. Bulegoak honako egun eta ordutegi hauetan funtzionatuko du:

* Otsailaren 13tik 17ra, biak barne. Goizez: 8etatik 1etara. Arratsalde: 2,30etatik 7,30etara. Bulego horretara joateko, udaletxeko 806025 telefonoan aurrezko zita bulego-ordutegian zehaztea beharrezkoa izango da.

Bestalde, Udala klorazio dispositibo edo gailu berriak ezartzera dihoa laister Koaten eta Esnaola auzoan.

Nesken areto-futbol liga

Hilaren 4ean eman zioten herriko neskek agurra ligari, Ordiziako taldeari modu bikainean 2-1 irabazi ondoren. Liga honetako lehen partehartzeari era pattal xamarrean ekin bazioten ere, konpetizioari neurria hartzen joan diren neurrian partidu ede-

rrak burutu dituzte. Azkenean, 6. postua eskuratu badute ere, ziur gaude Udaberriko Sarian emaitza hobea lortzeko gai direla. Ea herritarroi finallera animatzera joateko aukera eskeintzen diguzuen.

Santa Ageda bezpera berrituz

Ohiturei jarraituz, aurtengoan ere kantuz jantzi zitzaigun Santa Ageda bezpera egunez herria. Trikitixa lagun zutela koadrila polita elkartu zen iluntze aldera herritarroi usadio zaharrak gogoratzeko asmoz eta alaitasun piska bat kutsatu nahian.

Josune Amondarain

Segura Futbol Taldearen historia laburra

Depositoaldeko terrenoak zelaia zirela hasiak ziren herriko zenbait gazte futbola praktikatzen. Gaurko futbol zelaia dagoen tokia 1969an Markesaneko Alustizatarrek herriari utzi zioten, bertan kirola besterik egingo ez zenaren baldintzapean. Futbol zelaia izateak Segurako Futbol Taldearen sorreran eragin zuzena izan zuen. Zailtasunak ordea berehala hasi ziren: zuzendaritzan jende gutxi eta denek dena eginez, instalakuntza parregarriak, urik filtratzen ez zuen zelaia eta aldageletako dutexak askotan ez funtzionatzeaz gain, hamarretatik bederatzitan ur hotzarekin. Desplazamendu guztietan, entrenamendu zein partidu, beti betiko lau katuak Goierriko herri guztietara bueltaka. Ekonomi arazoak urtero aurre egin ezinda... Eta horrelaxe 11 urtetan.

Guzti hau ondo asko plasmazten duten anekdotak bukaezinak dira: jokalarien arropa lokatzuak karretilan hartu eta Argintxetik Mutilo errekarara garbitzera eramaten zituztenekoak, belau-netarainoko lokatzetan botak galdu eta ezin aurkiturik ibiltzen zirenekoak, ura berotu asmoz etxetik bonbonak eramaten zirenekoak, aldageletan urrik ez eta, Aldatardi azpiko askako izotza harriz puskatu eta garbitu zirenekoak, Pablo Lastalak eta abarrek lokatza lehorteaz traktorearekin, aspalditxoan desagertuta dagoen alperra pasatzen zutenekoak, hotz bustiak eragindako destenplea arintzeko atsedendaldietan jokalariei kafea eta pattar pixkat ematen zitzaiztenekoak, e.a. luzea.

Baina oroitzapen on askoak ere ba-



Infantilen arteko Espainiako Txapelketaren fase finala. Beasainen Real Madriden aurka 73-74 denboraldian.

dira. Besteak beste, infantil mailan Espainiako txapelketaren fase finala jokatu zuten Real Madrid, Barcelona eta Herculesen aurka. Jubenil mailan 2 aldiz Gipuzkoako txapeldun eta beste behin 2. Gipuzkoako federazioak infantil mailarik onartzen ez zuela eta, Elgoibar, Bergara, Oñati eta Segurako lehendakariak 3 urte iraun zuen federazio paraleloa sortu zuten eta izugarritzko arrakastaz Gipuzkoak gehieneko infantil taldeak aritu ziren. Hainbat jokalarik Beasain, Alaves eta Realera saltoa eman zuten. Aipagarria da Txiki Begiristain Seguratik pasa izana. Gipuzkoa mailan Añorgaren hurrena gazte talderik onenak zituela esan daiteke.

1980ean, artean hasierako jendea zebilen lan guztietan. Momentu hartan 3 lagunek funtzionarazten zituzten 4 talde. Zorrik ez zegoen lehenengo urtea zen. Baina urteetako desgastea izugarria zen. Realeko zuzendaritza bera ere dirua emateko eskaini zen. Baina ordu-rako berandu zen.

Taldearen 2. etapa antzeko arrazoiengatik hasi zen. 1989an futbol zelai berria eraiki zen, eta ez nolanahikoa gainera. Oraingoan ez zegoen lokatz beldurrik, aldagelek baldintza minimoak betetzen zituzten, desplazamenduetan zuzendaritzako betikoez gain haurren guraso askok ere parte hartzen dute. Badira ordea hasiera hartako zailtasun iraunkorrak ere: lanerako jende gutxi eta denek dena eginez, ekonomi arazoak (89an 200 bazkide eta gaur 80, helduen tarifa 3.000 pezeta besterik ez denean)... Baina bada aurreko etapan hainbeste somatzen ez zen fenomeno bat, partiduetara ia ez dela herritarrik azaltzen. Eta hori Aizkorri taldeko infantil eta kadeteetan 4 herritar ari direlarik, aspaldian izan den jubencil talderik onenean 3, eta urtero herrialdeko 1go mailara igotzear dabilen taldean 8. Iaz Andoainean azken hauek igoera jokatu zuten partiduan herritik joandako animatzaileak 30era ere ez ziren iritsi. Animo! Hau ez da Nuñezek dioen bezala "Talde bat baino gehiago", "Gainerako taldeen ezberdina" baizik, Joxe Gereñuk dioen bezala.

Bestalde, zuzendaritzakoek lerro hauen bidez oinarritzko futbolaren alde orain arte aportatu izan duten etxeak eskertu nahi dituzte: Manolo, Elorripe eta Imaz edaritegiak, Elorri, Txoritegi eta Zopajale elkarteak, Erosle denda, Aranburu harategia, Santa Barbara karrozeria, Anaiak garajea, Segura Irratia, Segurako Udala, Olabe galdaragintza, Pagosa okindegia, Gaiara autobusak, Oliver eta Ontza.



Herrialdeko 2. mailako taldea etxean jokaturako azken partiduan.

 Joseba Telleria

Zaldibiako Joxe Garmendia pilotari ohia

Zaldibiako Aztia-zahar etxean jaioetako goierritar honek 60 urte ditu; Ordizian lo egin, Zaldibian bizi eta lana Beasaingo Fabrika Haundian egiten du. Bestelakoan, pilotari profesionala izandakoa da 23 urtetan.

Goierriko Garmendiatar pilotari bakarra izan da, bailarako profesional hoberentsuenetakoa. Anek-dota txiki bat kontatu digu: "Egun batean Ordiziako Dioskoro taxista zaharrari deitu nion, Zaldibitik Bergara aldera eramanez nindin partidua jokatzera. Bera iristen ez eta oinez abiatu nintzen Ordiziara trena hartzera. Trena hartu eta Zumarragan trenak eta kotxeak ez aurrera, ez atzera geratu ziren, elurra baitzen. Bergarara oinez iritsi, partidua jokatu eta ahal nuen moduan bueltatu nintzen ge-



ro Zaldibiara". Horrela ibili beharra zeukaten garai bateko pilotariak!

Berak gogoratzen duenez, gaztetan Zaldibian polikiak jokatzen zuten pilotariak Felix Irastortza (19 urterekin hil zena) eta Sukia ziren. Migel Mari Arrese, Resti, Roman Igartzetakoa eta aipatutako Felixen aurretik egin zuen salto profesionalek Garmendiak. Zaldibian pilotari polit askoak zirela ondo gogoratzen du, Nikolas Mendizabal (Zarra), Olakorretako Joxe, e.a. luze bat. "Pilotari zahar-rago batek behin esan zidana: 'Mutil zirtzil hori, gu baino txikiagoa haiz eta 5. koadroraino ateratzen duk pelota'".

 **Koldo Zubeldia**

Bi lerrotan



GOIERRITARRAK

ACONCAGUAN Azkenaldi honetan goierritar ugari izan dugu Aconcagua aldean. Segurarrak, beasaindarrak, ataundarrak eta lazkaotarra ibili dira Amerikako mendirik altuena egin

nahian. Argazkietan ageri diren Felix Goiburu eta Aitzol Telleria segurarrak urtarilaren 19an igo ziren gailurrera. Hasiera batean txirrinduz jeisteko asmoa bazuten ere, baimen faltagatik asmoa ustel gelditu zen. Abenduaren 29an berriz, Jon Gorrotxategi, Xabier Irastorza "Barjo", Karlos Saez de Egilaz "Kai" beasaindarrek eta zestoar batek osatutako taldeak igo zuen, nahiz eta "Kai" helburu hau lortu ez. Bestalde, "Marron"i lagunduz Inazio Aierbe "Benantxio", Patxi Aierbe "Koli" eta Josetxo Arrese (honek ez zuen igo) izan zirela aipatu bagenuen ere, hauekin batera Jon Lasa lazkaotarra ere igo zuen. Zorionak denoi!

 **MIKEL LASAREN**
GOLA denon ahotan ibili da. Legorretarrak gol ikusgarria lortu zuen Sevillaren aurkako partiduko azken minutuan. Zelai erdiko marra pasa aurretik ostikoz jo eta 58 metrotara zegoen Unzuereen atea "zulatu" zuen.

 **IKER SUKIA PISU**
JAURTITZAILE ataundarrak, Euskadiko errekor berria jarri du. Bera jubenila den arren, helduekin parte hartu zuen txapelketan eta duela 14 urte egindako marka 79 zm.tan hobetu du. 15,89 metrotan jarri du gainditu beharreko marka.

IPARRAGIRRE ANAIAK, C.B.

KARROZATEGIA

Hiribarren, 24
Tfnr. 88 95 83

20210 LAZKAO
(Gipuzkoa)



RENAULT

AGENTZIA

**LAZKAO
GARAJEA**

Senpere Industrialdea
☎ 882442-888901
Faxa: 888901
LAZKAO

JESUS JAUREGI PINTORE ETA ESKULTOREA SEGURAN BIZI DA **“Herri txikietan pentsatzen ikasten da, jendea sormen handiagokoa da”**

Jesus Jauregi lezamarra jaiotzez, txikitatik artera-ko trebetasun haundikoa, bere ezagutza areagotu nahirik eta beste kultur batzuk sortzen zioten jakinminak erakarrita, Latinomakerikara jo zuen 20 urte zituela, han 17 urte egin ditu. Orain Goierrin dugu, Seguran bizi da duela 2 urtetik. *“Herri txikietan pentsatzen ikasten da, jendea sormen handiagokoa da. Hiri handietan sormenak kabida gutxiago du, estimuloen aurrian erantzuten ikasten da”*, adierazi du Jesus Jauregik.

Arte Ederrak egin ondoren 30 urterekin hartu zuen artearekiko konpromezua. Pintura eta eskulturan gehiago aritu bada ere, arkitektura munduan ere izan du esperientziarik. “Bidegurutzan” izeneko 10 metrotako altzairuzko eskultura bat jarri berri du Elgoibarko rotondan. Momentu honetan Londresen egingo duen pintura erakusketa prestatzen ari da.

Argentinak eta batez ere Mexikok bere estiloan eragin zuzena dute. *“Han hemendik neraman kolore zentzu ezberdina jaso dut, indartsuagoak eta musikalagoak. Euskal koloreak ilun eta serioagoak dira”*. Bere kurrikuluma sari eta aipamen bereziz bete dago. Hango erakus-areto nagusietaraino iritsi ziren bere lanak. Hura gogoan badu ere, emaztea ere mexikarra da, herri-



“Jesus Jauregi Segurako bere estudioan.”

minak eta bere herriari aportatu nahiak itzularazi zuen. Euskal Herria ez du oso egoera gustagarrian topatu, *“tradicioari fede itsua zaio eta honen alderdi pasatuenarekin geratu gara. Geldialdi artistikoa nabarmen da”*.

Gizarte konpromezua kontutan izanik, abstrakzioaren inguruan kokatzen du bere lana. *“Abstrakzioarekiko ga-*

tazka gainditzeko, jarrera irekia izan behar da. Askatasunez begiratu, pentsatu eta galdetu, dena aldatzen hasiko da. Nire irudiak itxuragabetu eta berezko ordena aldatzen diet adierazpen indarra areagotzeko”.

Egin behar ez denaren adibideak

Egin behar ez denaren adibide berri askoak baditugu Goierrin bertan Jesus Jauregiren esanetan. *“Lazkao Txikiri eskaini zaion eskulturan, helburua alkandora edo prakaren zimurrak edo sudurraren ondo lortutako forma gorai-patzea bazen, pobre eta mugatua da, baina ez dago gaizki. Baina merezitako omenaldiaren arrazoia Lazkao Txikiren espiritua eta bere ahotsaren arima memorian gera zitezen baldin bazen, beste lan moeta batetara jo behar zen: eskulturak berak era eta hizkuntza egokian poesiaz kanta zezan, hor baitago oinarria, olerkari horrek merezi zuen adinakoa.*

Kontextutik kanpo dauden eraikuntzak herri guztietan ikus daitezke. Ez daukanari inportantzia izugarria ematen zaio eta daukanari ezer ez”, gaineratu du. Zerainen berriztatze proiektua izan daiteke gauzak nola egin behar denaren adibidea.

✍ Joseba Telleria

GOIERRITARRA



88 96 12

Faxa: 88 27 19

EROSKI KAFETEGIA

**gosari - merienda
eguneroko menua**

☎ 88 27 93

ORDIZIA

Punkaren islada, Potrotaino

Bigarren lana du kalean Ordiziako Potrotaino taldeak eta 4 urte isilik egon ondoren, 'punk' disko bikain bat ekarri digute. Pedro, Txapu, Estebi eta Txarlyrekin bildu ginen, Gorka min hartuta baitago. Lan berri honekin 'punk'-ak oraindik lekurik baduela garbi utzi dute eta bide komertzialak alde batera utzi eta alternatiboen alternatiboenekin aurrera egitea erabaki dute, DDT-rekin alegia.

G.- 4 urteko isilaldia eta gero nola liteke honelako diska bikain batekin lehertzea?

E.- Denboraldi honetan isilik egon gara gure arteko tirabirengatik. 10 urte eta gero arrunta gertatzen da, eta arazo honi aurpegia emateko modurik onena abestiak egitea dela uste dugu, era honetan egin dugu lan hau.

G.- Nola sailkatuko zenukete zuen diska berri hau?

E.- Potrotainoren bidean, aldaketa eboluzioarekin dator, agian landuagoa dago baina urteak ez dira alferrik pasatzen...

G.- Non eta nola egin dituzue grabaketa lanak?

E.- Revolution Recordsen (Larrabetzu) egin genuen, estudio berri batean, Sabin Kareagarekin. 2 egunetan grabatu eta bestean nahasketak egin geni-



tuen. Estudio hau edonori gomendatzen diogu, benetan ondo dago, eta merke.

G.-Emaitzarekin gustora al zaude-te?

E.- Oso gustora, emaitza benetan ona baita. Disko hau gure soinetik, Potrotainoren soinetik oso gertu dago. Hobetzeko lan gehiago egin behar da eta guk beste ogibide bat daukagunez denborak ez du gehiagorako eman, ezinezkoa da honetatik bizitzea.

G.- Benetan sinestizina dirudi ho-

rrelako salneurriekin era honetako emaitzak lortzea...

E.- Bai, ba pentsa zenbat azpijoku izango den hortik. Guk emaitza ona lortu dugu, zinta 500 pezetan eta diskoa 800ean saltzen ari gara, irabaziak barne. Bai, zure buruari galdera asko egingen dizkiozu emaitza antzekoak eta salneurri ezberdineko beste batzuekin konparatzen.

G.- Urteen joan etorriek ez dizue lasaitasunik ekarri dirudienez. Hitzak sekula baino kritiko eta bortitzaagoak dira.

E.- Garbi dagoena da arazoak hor daukela urteak aldatu arren eta okerragora goazela dirudi. Guk abesten eta saltzen jarraituko dugula argi eta garbi dauka, jende horrek bakean uzten gaituen arte behintzat.

E.- Zeintzu dira zuen proiektuak?

G.- Ea noiz entseiatzen dugun, zeren diskoa kaleratu dugunetik, alperkeriak jota gaude. Hori bai, datorren urteko abenduaren 28rako beste disko bat. Bestetik, larunbatean Ordizian kontzertu bat dugu eta batez ere kondizio minimo batzuekin jo nahi dugu, azpijoku eta faltsukeriarik gabe.

Artza



La Polla Records: "Bajo Presion". Oihuka.

Beraien 11. lana dute aguraindarrek 'Bajo Presion' izenburuarekin argitaratu duten hau. Denak ahozabalik utzi gaitu

lan honek. Ez da harritzekoa, diskoa 'Monopoly' bezalako abestiekin irekitzen bada. Honen atzetik abestiak bana-ka erortzen dira, 'Analizando' kantara iritsi arte. Evaristo eta bere taldeak ez dituzte nabari daramatzaten urteak. Asko dira urteak eta asko lanak (diskoak) baina gutxi, oso gutxi 'Bajo Presion' bezalakoak.

Bizkar hezurra: 'Beldurraren kultura'. I.Z.

Lan hau eskuetan izaten duzun une berean, barruan dagoenarekiko jakinmina sortuko zaizu eta ez galdetu zure buruari ea aseturik utziko zaitun ala ez, asetasun sentsazioaren areagotzea oraintxe ziurtatzen bait dizugu. Badakite

zein lekutan dabilzan mutil hauek, funk-metal eta rock erritmoak gogor nahastuz lortzen duten etekina ez baita nolanahikoa. Baxu eta kitarraren mastiletatik trebe mugitzen dira Mikel eta Goar, baita Kasti eta Triumakila eta ahotsarekin ere. Eguneroko arazoei erantzun gogorra, 14 erantzun garratz, abesti batzuen tartean sampler bikain batzuk; hau dena 10 bat merezi duen aurkezpenean bilduz lortzen denaren erantzuna zera da: ez dagoela mugetan beste aldera jo beharrik musikaren bitartez indarra eta gisa honetako kalitatea lortzeko.

Artza



50. hamarkadako Ordiziako Banda

Iñaki Ramirezek eskuratu digu argazkia eta Joxe Garmendia taxistak aitatu dizkigu Ordiziako 50 hamarkadako Bandakoen partaideak (denak gogoratu ez baditu ere). Bandak, jaioterriaz gain, Gipuzkoako herri askotako jaietan jotzen zuen: Andoain, Hernani, Beasain, Idiazabal; bai eta Segurako prozesioetan ere. Zuzendaria Jose Luis Gurrutxaga zuen eta zuzendariordea Manuel Bergara.

Iharaka, ezkerretik eskubira eta goitik behera: Periko Calvo, Manuel Bergara, Celestino Pedrosa, Altzagako Periko, Alda, Txurruka, Lakalle, Aitor Amilibia, Gonzalez; Tomas Iturrioz, Jesus Moreno, Alvarez, Jose Luis Gurrutxaga (zuz. semea), J.L. Gurrutxaga (aita), Juan Torres, Josinazio Iturralde, Joxe Arruabarrena, Posa, X, Florentino Alecha; German Telleria, Diego Gurrutxaga (seme zaharrena eta Lazkaoko alkate ohia), Jesus Garcia, Jesus Armañanzas, Uranga "Tximua", Tello, Josetxo Garmendia, Iturrioz, Alda eta Berasategi.

FORMAKUNTZA IKASTAROA



IRAKASLE ESKOLA
ESKORIATZA
Irakasleen Unibertsitate Eskola
Teknologia Berrien Departamentua

HEZITEK

- ✦ **MULTIMEDIAREN APLIKAZIOAK ENPRESAN:**
Otsailak 17, 18, 24, eta 25, martxoak 3 eta 4, apirilak 7, 8, 21 eta 22.
Ostiralak eta larunbatak. 45 ordu. Matrikulak otsailaren 8tik 15era.
- ✦ **KOMUNIKAZIO ENPRESARIALA ETA INSTITUZIONALA:**
Martxoak 10, 11, 17, 18, 24, 25 eta 31, eta apirilak 1.
Ostiralak eta larunbatak. 45 ordu. Matrikulak otsailaren 20tik 24 ra.
- ✦ **ENPRESA ETA INSTITUZIOETAKO BOZERAMAILEEN PRESTAKUNTZA:**
Maiatzak 6 eta 13. Larunbatak. 16.00etan.
Matrikulak otsailaren 20tik 24ra.
- ✦ **CD-ROM-EN APLIKAZIOAK ETA ESPLOTAZIOA ENPRESAN:**
Maiatzak 12, 19 eta 20. Ostiralak eta larunbatak. 15 ordu.
Matrikulak otsailaren 20tik 24ra.
- ✦ **KOMUNIKAZIOA ETA OSASUN SUSTAPENA:**
Ekainak 2, 3, 9, 10, 16, 17, 23 eta 24. Ostiralak eta larunbatak. 48 ordu.
Matrikulak otsailaren 20tik 24ra.

HEZILAN

- ✦ **3D-KO DISEINUA AUTOCAD 13REKIN PC-REN GAINEAN:**
Martxoaren 8tik maiatzaren 12ra, astegunero. 120 ordu.
Matrikulak otsailaren 20tik 24ra.
- ✦ **3D-KO ANIMAZIOA 3D-KO STUDIOREKIN PC-REN GAINEAN:**
Maiatzaren 15etik uztailaren 7ra, astegunero. 120 ordu.
Matrikulak otsailaren 20tik 24ra.
- ✦ **AUTOEDIZIOA PAGE MAKER 5.0-REKIN PC-REN GAINEAN:**
Maiatzaren 29tik uztailaren 7ra, astegunero. 90 ordu.
Matrikulak otsailaren 20tik 24ra.

OHARRA: INFORMAZIO GEHIAGO ETA PROGRAMAK NAHI IZANEZ GERO. ESKATU IKASTAROAREN KATALOGOA TELEFONO HAUETAN: 71 50 89 eta 71 46 37.

LAGUNTZAILEAK:



Gipuzkoako Foru Aldundia
Diputación Foral de Guipúzcoa
Ekonomia Departamentua
Departamento de Economía

LOINATZ
Taberna
Jatetxea

Bazkari, afari,
ogitarteko, pintxoak



Nagusia, 27 ☎ 88 20 07 BEASAIN

LEIAR
KRISTALDEGIA



ERAKUSKETA: Ezkiaga Pasealekua z/g ☎ 888824
BILTEGIA: Salvatore Industrialdea. ☎ 886070
BEASAIN

GOIERRITARRA



88 96 12

ERREALITATEAK FIKZIOA
GAINDITZEN DUENEAN


Escort 95
BERRIA



Zatoz Escort berria ikusi eta probatzera
Escort '95aren Aste Nagusian, otsailaren 13tik 17ra



Mujika ☎ 88 74 00 • N-1 errepidea • Beasain



*i*txura baino
gehiago...

ANITZA

FOTOKONPOSAKETA

INPRIMATEGIA

Industrialdea 1-2 • ☎ (943) 37 15 45 - Faxa: (943) 36 10 48 • 20160 LASARTE-ORIA